



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



GIZARTE, KULTURA
ETA KOMUNITATEKO
ZERBITZUAK

Profesionaltasun-ziurtagiria

PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ETXEAN

[2. maila]



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAINETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua
Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional

Edukiak

I PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA

IZENA	06
KODEA	06
LANBIDE-ARLOA	06
LANBIDE-EREMUA	06
ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA	06
LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA	06
GAITASUN OROKORRA	06
PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDA	06
LANBIDE-INGURUNEA	06
PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA	07

II PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAREN LANBIDE-PROFILA

1	1. gaitasun-atala	10
	ARRETA SOZIOSANITARIOA BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEZ ETXEKO ARRETA FISIKOKO ESKU-HARTZEAK	
2	2. gaitasun-atala	12
	ARRETA SOZIOSANITARIOA BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEZ ETXEKO ARRETA PSIKOSOSIALEKO ESKU-HARTZEAK	
3	2. gaitasun-atala	15
	BIZIKIDETZA-UNITATEAREN KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK GARATZEA	

III PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIRAKO PRESTAKUNTZA

1	1. prestakuntza-modulua:	20
	ETXEZ ETXEKO HIGIENEA ETA ARRETA SANITARIOA	
2	2. prestakuntza-modulua:	25
	ETXEZ ETXEKO ARRETA ETA LAGUNTZA PSIKOSOSIALA	
3	3. prestakuntza-modulua:	31
	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ETA FAMILIA-ELIKADURA	
4	4. prestakuntza-modulua:	35
	PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA ETXEAN EMATEKO LANEKOAK EZ DIREN LANBIDE-JARDUNBIDEAK	

IV PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK, GUNEEN, INSTALAZIOEN ETA EKIPAMENDUEN GUTXIENEO ESKAKIZUNAK, ETA SARTZEKO IRIZPIDEAK

PRESTATZAILEAK	40
GUNEAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	41
SARTZEKO IRIZPIDEAK	42



I PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA



IZENA

PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ETXEAN

KODEA

SSCS0108

LANBIDE-ARLOA

Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuak

LANBIDE-EREMUA

Gizarte-arreta.

ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA

SSC089-2 Pertsonen arreta soziosanitarioa ematea etxean (295/2004 EDa, 2004ko otsailaren 20koa).

LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA

2

GAITASUN OROKORRA

Osasun fisikoari, psikikoari eta sozialari dagokionez, behar bereziak dituzten pertsonen esparru soziosanitarioan laguntzea etxean, haien autonomia pertsonala eta ingurunearekin dituzten harremanak mantentzeko eta hobetzeko egokienak diren estrategiak eta prozedurak aplikatuz.

PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDA

- UC0249_2: Arreta soziosanitarioa behar duten pertsonentzako etxez etxeko arreta fisikoko esku-hartzeak.
- UC0250_2: Arreta soziosanitarioa behar duten pertsonentzako etxez etxeko arreta psikosozialeko esku-hartzeak.
- UC0251_2: Bizikidetzaren unitatearen kudeaketa eta funtzionamenduari lotutako jarduerak garatzea

LANBIDE-INGURUNEA

Lanbide-esparrua

Oro har, pertsonen eta haien ingurunean etxean ematen zaien zuzeneko arreta soziosanitarioko jarduerak antolatzen, gauzatzen eta kontrolatzen egin dezake lan.

Zehazki, hauek kontratatu ahalko dute:

- Mendeko pertsonen etxez etxeko arreta-zerbitzuak kudeatzeaz eta emateaz arduratzen diren administrazio publikoek, bereziki, tokikoek eta erkidegokoek.

- Erakunde pribatuak, irabazi-asmokoek zein irabazi-asmorik gabekoek, bai erabiltzaileari zuzeneko zerbitzuak eskaintzen dizkietenek, bai etxez etxeko arreta-zerbitzu edo -programa publikoak kudeatzen dituztenek.



- Autonomo gisa, bere zerbitzuak bizikidetz-unitate eskatzaileei zuzenean eskainiz edo etxez etxeko zerbitzuen enpresa propioa sortuz, beste teknikari batzuekin elkartuta.

Ekoizpen-sektoreak

Etxe partikularrak.

Babespeko etxebizitzak.

Etxez etxeko zerbitzuak eta arreta.

Lanbideak edo lanpostuak

51130024 Etxez etxeko laguntzailea.

51130024 Etxez etxeko arretarako laguntzailea.

Adinduen, desgaitasunen bat dutenen eta etxean eriondo daudenen zaintzailea.

PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ORDUAK	PRESTAKUNTZA-ATAKAK	ORDUAK
MF0249_2 Etxez etxeko higieena eta arreta sanitarioa	170	UF0119. Mendeko pertsonen arreta higieniko-sanitarioko beharrak eta ezaugarriak	70
		UF0120. Mendeko pertsoneri elikagaiak eta tratamenduak ematea etxean	50
		UF0121. Mendeko pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen laguntzako zerbitzuak ematea etxean	50
MF0250_2 Etxez etxeko arreta eta laguntza psikosoziala	210	UF0122. Mendeko pertsonen mantentze eta errehabilitazio psikosoziala etxean	80
		UF0123. Mendeko pertsoneri eguneroko kudeaketetan laguntzea	50
		UF0124. Erlazioa, komunikazioa eta behaketa mendeko pertsonarekin eta haren ingurunearekin	80
MF0251_2 Etxez etxeko laguntza eta familia-elikadura	100	UF0125. Mendeko pertsonen familia-unitateko kudeaketa, hornikuntza eta sukaldaritza	60
		UF0126. Mendeko pertsonen etxeko mantentze-lanak, garbitasuna eta antolaketa	40
MP0028 Pertsonentzako arreta soziosanitarioko lanekoak ez diren jardunbideak etxean	120		
IRAUPENA, GUZTIRA	600		

II LANBIDE-PROFILA

1. gaitasun-atala:
ARRETA SOZIOSANITARIOA BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEZ
ETXEKO ARRETA FISIKOKO ESKU-HARTZEAK

1

2. gaitasun-atala:
ARRETA SOZIOSANITARIOA BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEZ
ETXEKO ARRETA PSIKOSOZIALEKO ESKU-HARTZEAK

2

3. gaitasun-atala:
BIZIKIDETZA-UNITATEAREN KUDEAKETA ETA
FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK GARATZEA

3



1. gaitasun-atala:

ARRETA SOZIOSANITARIOA BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEZ ETXEKO ARRETA FISIKOKO ESKU-HARTZEAK

Kodea: UC0249_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Erabiltzaileak higiene pertsonaleko kondizio egokietan edukitzea, haien beharren arabera eta aurrez ezarritako esku-hartze planaren arabera behar duten laguntza emanez.

BI1.1 Higiene-ohitura osasungarriak, behar diren produktu eta materialak eta haien erabilera egokia dela eta behar den laguntzari buruz erabiltzaileari eta familiari ematen zaion informazioa aurrez ezarritako protokoloari egokitzen zaio.

BI1.2 Pertsonaren garbitasuna haren beharren arabera eta haren mendekotasun-mailaren arabera egiten da, betiere egiaztatuz garbi eta lehor dagoela eta arreta berezia jarriz gorputzeko tolesetan.

BI1.3 Ohea behar bezala eginda egoten da, arropa zuri egoki eta garbiarekin, zimurrik eta hezetasunik gabe, eta posizio egokian, erabiltzaile bakoitzaren beharren arabera.

BI1.4 Erabiltzailea janzteko arropak jantzi eta oinetako egokiak dira, haren beharretara, temperaturara eta urteko saroirra egokitutakoak, eta haren autodeterminazio-maila errespetatzen dute.

BI1.5 Egindako jardueri buruz jasotako informazioa zuzena eta osoa da, eta ezarritako prozeduren bidez eta une egokian transmititzen da.

LB2: Erabiltzaileen ahalmen fisikoak eta mugitzekoak mantentzeko eta hobetzeko jarduerak egitea, haiek egiterakoan berarekin egonez, zainduz eta lagunduz, kasu bakoitzean zehaztutako hobekuntza-plan pertsonalaren esparruko segurtasun- eta erosotasun-baldintzak betetzen direla ziurtatuz.

BI2.1 Kasu bakoitzean erabili behar diren mobilizazio-jarraibideei eta laguntza teknikoiei buruzko informazioa jasotzen du erabiltzaileak eta/edo familiak.

BI2.2 Joan-etorrietarako behar diren laguntza teknikoak prest daude, egiaztatuta haien egoera eta erabiltzailearen kondizio pertsonaletara egokitzen direla, eta erabiltzaileari aurrez eman zaio haien berri.

BI2.3 Jarraibideei jarraituz jartzen da pertsona laguntza teknikoetan, behar izanez gero familiaren laguntzarekin.

BI2.4 Oheratuentzako eta presiogatikoko ultzerak prebenitzeko ezarritako protokoloei jarraituz mugitzen da erabiltzailea, kasu bakoitzeko ezaugarrietara egokituz.

BI2.5 Ahalik eta erosoan eta posizio anatomiko egokian egoten da pertsona, zainketa pertsonalizatuen planaren arabera kasu bakoitzeko beharretara egokituz, eta atsedena eta erosotasuna optimizatzeko behar diren kondizioak erraztuz.

BI2.6 Pertsonaren joan-etorrietako eta mantentze fisikoko noizean behingo beharretarako arreta ezarritako protokoloaren arabera egiten da.

BI2.7 Larrialdietan, erabiltzaileari, eta behar izanez gero, haren familiari, aurrez ematen zaie egingo den lekualdaketa berri.

BI2.8 Egindako jardueri buruz jasotako informazioa zuzena eta osoa da, eta ezarritako prozeduren bidez eta une egokian transmititzen da.

LB3: Jaten laguntzea eta erabiltzaileen hondakinak jasotzea behar dietetikoak errespetatuz, haien osasun-egoera eta ongizatea mantentzeko eta/edo hobetzeko.

BI3.1 Elikagaiak emateko modu egokiari buruzko eta iraizkinak jasotzeko eta ezabatzeko erabiltzen diren materialen erabilera egokiari buruzko informazioa jasotzen du erabiltzaileak eta/edo haren familiak, erabiltzailearen beharren arabera eta aurrez ezarritako zainketa-planari jarraituz.

BI3.2 Menuak egiteko, kontuan hartzen dira dieta- eta nutrizio-aginduak, norberaren gustu eta lehentasunak, dieta-bariatatea, esleitutako aurrekontua eta sasoi bakoitzeko merkatuko eskaintza.



BI3.3 Elikagaiak emateko, aurrez prestatzen da erabiltzailea ezarritako protokoloei jarraituz, eta, behar izanez gero, familia trebatzen da.

BI3.4 Jaten emateko laguntza behar duten erabiltzaileei jaten emateko, aurrez ezarritako zainketa-plan bati jarraitzen zaio.

BI3.5 Hondakinak egoera bakoitzean egoki diren baliabide eta materialekin jasotzen dira, ezarritako higiene- eta segurtasun-baldintzak betez.

BI3.6 Egindako jardueri buruz jasotako informazioa zuzena eta osoa da, eta ezarritako prozeduren bidez eta une egokian transmititzen da.

LB4: Medikamenduak prestatzea eta ahotik, uzkitik edo bide topikotik ematea, eta hotz- eta bero-tratamendu lokalak aplikatzea, erabiltzaileen segimendua egiten lagunduz, eta zainketa indibidualizatuen planean ezarritako jarraibideei jarraituz.

BI4.1 Erabiltzailea behar bezala informatuta eta prestatuta dago medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik hartzeko eta hotz- eta bero-tratamendu lokalak aplikatzeko.

BI4.2 Ahotik, uzkitik eta bide topikotik medikamenduak ematen direnean, aerosolak eta oxigenoa barne, hala behar denean, bide eta produktu bakoitzerako jarduera-protokolo espezifikoari jarraitzen zaio, ezarritako protokoloaren arabera.

BI4.3 Hotz- eta bero-tratamendu lokalak jasotako ohar eta jarraibideen arabera aplikatzen dira.

BI4.4 Medikamentuak emateko jardueri eta gerta daitezkeen gorabeherei buruzko informazioa ezarritako prozeduren arabera eta une egokian ematen da.

BI4.5 Behar den materiala prestatzeko, baliabide egokiak erabiltzen dira, eta aginduei jarraitzen zaie.

BI4.6 Zainketa-lanetan, pertsonari behatzen zaio, eta dagokionari jakinarazten zaio haren egoera orokorra alda dezakeen zeinurik ikusten bada.

BI4.7 Bizi-konstanteak neurtzeko tekniketarako material egokia erabiltzen da, pertsonaren ezaugarrien arabera.

BI4.8 Egindako jardueri buruz jasotako informazioa zuzena eta osoa da, eta ezarritako prozeduren bidez eta une egokian transmititzen da.

LB5: Ezarritako planaren arabera jardutea, istripuak prebenitzeko teknikak eta, behar izanez gero, lehen laguntzakoak aplikatuz.

BI5.1 Esku-hartzeak behar diren babes-neurriekin egiten dira, bai erabiltzailearentzat, bai profesionalarentzat.

BI5.2 Hil edo biziko larrialdien kasuan, zerbitzu eskudunei eta familiari jakinarazten zaie, eta aurreikusitako jardueramekanismoak martxan jartzen dira.

- Bihotz- eta arnas gelditze bat gertatuz gero, bizkortzeko kardiobaskularreko oinarrizko teknikak aplikatzen dira.
- Kanpo-odoljarioetan, odola galtzea gelditzeko edo gutxitzeko behar diren zapalketa-teknikak aplikatzen dira.
- Istripuen arretan, istripua izan duena osorik edo haren gorputz-atalen bat immobilizatzen da, eta hura lekuz aldatzeko behar diren mekanismoak martxan jartzen dira, behar izanez gero, osasun-zentro batera lagunduz.
- Asfixia-, erredura-, intoxikazio eta ziztada-kasuetan, larrialdietako zainketak aplikatzen dira, hala behar izanez gero.
- Gorputz arrotzak irentsiz gero, protokoloetan deskribatutako kanporatze-maniobrak egiten dira.

BI5.3 Gertatutako gorabeherei buruzko informazioa familiari eta talde teknikoari transmititzen zaio, eta, behar izanez gero, erregistratu egiten da ezarritako protokoloen arabera.

Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Erabiltzaileari eta haren inguruneari buruzko banakako informazioa. Pertsonentzako arreta- eta zainketa-prozedurak. Egin behar diren jardueren programazioa. Erabiltzen diren tekniken protokoloak. Erabiltzailearen etxeko gauzak. Arropa zuria. Garbitasunean, desinfekzioan, medikamentuak prestatzean eta ematean eta elikagaiak ematean pertsonen arreta fisikoan erabiltzen diren materialak eta tresnak: ohe artikulatuak, makuluak, gurpil-aulkiak, taka-takak, protesiak eta ortesiak, aerosolterapiako eta oxigenoa emateko gailu eramangarriak, presioagatiko ultzerak prebenitzeko erabiltzen diren materialak, infekzioak prebenitzeko erabiltzen direnak eta infekzioak kontrolatzeko eta hondakinak jasotzeko askotariko material klinikoak. Erregistratzeko dokumentazioa: gertakari- eta segimendu-orriak, tratamendu-orriak eta dieta-orriak.



Lanaren emaitza edo produktuak

Erabiltzaile asebetea bere oinarrizko beharrei dagokienez: informazioa ematen zaio, garbitu eta elikatu egiten da, mobilizatu egiten da eta larrialdietan tratatu egiten da. Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko abilezia eta trebetasunak mantendu eta hobetzen dituen erabiltzailea. Egindako erregistroak. Erabiltzaileen bilakaera-txosten osatuak. Materialak eta tresnak higiena-kondizio egokietan.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Erabiltzaileen egoerari buruzko informazio idatziak. Erabiltzaileari eta familiari zuzenean behatuta ondorioztatutako informazioa. Jarduera-jarraibideak. Tratamendu-orriak, dieta-orriak, prozedura-eskuliburuak, erabiltzen diren tekniken protokoloak, erabiltzen diren ekipoen jarraibideen eskuliburuak, iruzkin- eta bilakaera-orriak, erregistro-orriak. Osasun-informazioari buruzko eskuliburuak, zainketei buruzkoak eta segurtasun-planei buruzkoak. Gaiarekin lotutako bibliografia, legedia eta araudia.

2. gaitasun-atala:

2

ARRETA SOZIOSANITARIOA BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEZ ETXEKO ARRETA PSIKOSOZIALEKO ESKU-HARTZEAK

Kodea: UC0250_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Lekuak eta materialak prestatzea eta kondizio egokietan mantentzea, erabiltzaileen autonomia, komunikazioa eta bizikidetzatza aldezteko.

BI1.1 Leku eta altzarien mantentze-lanak egiteko kontuan edukitzen dira alderdi hauek:

- Profesionalak agindutako jarraibideak eta orientabideak.
- Pertsonaren beharrak, haren mendekotasun-mailaren arabera.
- Erabiltzaileen eta familiaren ohiturak eta gustuak.
- Ezarritako segurtasun- eta higiena-arauak.

BI1.2 Etxea apaintzean, kontuan hartzen da mantentze eta lanketa kognitiborako eta ohiturak mantentzeko eta lantzeko behar diren komunikazio-, seinaleztapen- eta sinbolizazio-elementuak.

BI1.3 Erabiltzaileak erabiltzen dituen materialek bere ezaugarri pertsonalen arabera ezarritako segurtasun-arauak betetzen dituzte.

BI1.4 Erabiltzaileari eta/edo zaintzaile nagusiei lekuei eta materialei buruzko informazioa eta orientabidea emateak laguntzen du erabiltzaileak modu autonomoan ibil daitezen eta haien komunikazioan eta bizikidetzan.

LB2: Kontu pertsonalak eta harreman-kontuak konpontzeko egin behar diren kudeaketak egiten laguntzea erabiltzaileari, komunitate-zerbitzu eta -baliabideak eskuratzea barne.

BI2.1 Erabiltzailearengandik eta/edo diziplinarteko taldearengandik jasotako informazioaren bitartez, behar indibidualak ezagutzen dira eta egin behar diren kudeaketa pertsonalak eta harremanekoak zehazten dira.

BI2.2 Erabiltzaileari informazio argia eta zehatza ematen zaio, igorritako mezuak ulertu dituela ziurtatuz.

BI2.3 Erabiltzailearen beharrak kontuan hartuta, autonomia-mailaren eta egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera, esku-hartzen da eta ematen da arreta eta laguntza eguneroko bizitzan moldatzeko kudeaketak egiteko, hala, zerbitzuak kudeatzea eta alor pertsonalean, sozialean eta sanitarioan moldatzeko behar dituen dokumentuak eguneratzea bermatzen da.



BI2.4 Egoera pertsonalak eta familiarrak hala eskatzen duenean, erabiltzaileak edo tutoreak agindutako banku-kudeaketak egiten dira eta, dagokionean, gutunak jaso eta bidaltzen dira, betiere, jarraibide deontologikoen eta jasotako orientabideen arabera.

BI2.5 Kudeaketen emaitzak eta haietan izandako gertakariak ezarritako prozeduren arabera transmititzen dira.

BI2.6 Teknikariaren esku-hartzeek parte hartzen duten pertsonen eskubideak une oro errespetatzen dituzte, egoera bakoitzeko etikako oharrak betez: desgaitasuna, tutoretza eta kuradoretza.

BI2.7 Erabiltzaile bakoitzari aisialdian, etxean edo etxetik kanpo, egiten eta ematen zaion laguntza emozionala eta bestelakoa haren beharren arabera eta hark, eta/edo familiak eta/edo talde teknikoak emandako jarraibideetara egokitzen da, eta, behar izanez gero, alderdi hauek kontuan hartzen dira:

- Interes pertsonalak.
- Maila kulturala.
- Osasun-egoera.
- Norberaren harreman- eta komunikazio-beharrak.

BI2.8 Gertakari ezarritako protokoloen arabera behatzen zaie, eta haien arabera konpontzen eta erregistratzen dira eta hala transmititzen zaizkio talde teknikoari.

BI2.9 Erabiltzaileei eta/edo haien zaintzaile nagusiei informazioa eta orientabidea emateak erabiltzaileak modu autonomoan moldatzea eta haien autodeterminazioa, komunikazioa eta harreman soziala laguntzen du.

LB3: Erabiltzaileari laguntzea bere egoera psikologikoa, errehabilitazioa eta okupazio-maila mantentzeko jarduerak eta ariketak egiten, haien segimendua egiten eta haien bilakaerari buruz informatzea.

BI3.1 Erabiltzaileari eta haren inguruneari ematen zaion informazioa eta orientabidea argia eta zehatza da, eta haren motibazioa eta kolaborazioa sustatzeko esku-hartzeari buruzkoa baino ez da.

BI3.2 Mantentze- eta entrenatze-ariketak egiteko ematen den laguntzan, kontuan izan behar dira alderdi hauek:

- Profesional eskudunen aginduak.
- Motibazio-maila.
- Osasun-egoera.
- Erabiltzailearen bilakaera.

BI3.3 Informazioaren behaketa eta bilketa ezarritako prozeduren arabera erregistratzen dira.

BI3.4 Lortutako informazioarekin eta taldeari edo teknikari transmititutako informazioarekin, programatutako jardueretan egin beharreko doikuntzak egin daitezke eta haiek egiteko irizpideak eta estrategiak kasuaren bilakaeraren arabera egokitu daitezke.

LB4: Erabiltzaileak okerrera egin duelako edo haren familia- eta/edo gizarte-ingurune egoerek eragindako eskaerak eta behar bereziak detektatzea, profesional eta zerbitzu eskudunei bideratzeko.

BI4.1 Erabiltzaileari eta haren inguruneari sistematikoki erreparatuz gero, egon daitezkeen hondatze-egoerak detekta daitezke:

- Autonomia pertsonalean, eguneroko gauzetan moldatzeko orduan.
- Oinarrizko beharren arreta familiarrean.
- Harreman-mailetan.
- Autodeterminazio-mailan.
- Bere baliabideetan.

BI4.2 Transmittitutako informazioaren bitartez, diziplinarteko taldeak hondatze-egoerak prebenitzeko eta/edo arintzeko esku-hartzeak programatu ditzake alderdi hauek kontuan hartuta:

- Behar diren laguntza teknikoak.
- Baliabide berezien kudeaketa.
- Esku-hartzeen, jardueren, estrategien eta irizpideen egokitzapena.

LB5: Erabiltzailearen familiarekin harreman errazak izatea, haiei orientabideak emanez. Material- eta harreman-beharrak betetzeko esku hartu dezaten bultzatuz eta gai horretan sentsibilizatuz.



BI5.1 Erabiltzailearen familia-ingurunearekin izandako harremanetan jasotako eta behar bezala erregistratutako informazioari esker, diziplinarteko taldea zehaztu dezake familiak zer esku-hartze maila duen erabiltzailearen beharren arretan.

BI5.2 Familiarekiko harremanak erabiltzailearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

BI5.3 Erabiltzailearen oinarrizko beharrak betetzeko familiari eskaerak egitean, ezarritako errespetu-, ulermen- eta komunikazio-irizpideak eta -jarrerak mantentzen dira.

BI5.4 Transmittutako informazioaren bidez, familiak hobeto ulertzen ditu erabiltzailearen oinarrizko beharrak eta material- eta harreman-beharrak, haien esku-hartzeari bide emanez.

BI5.5 Familiari transmititzen zaion informazioa haren ardurapeko alderdiena da. Gainerako eskaera familiarak dagozkien profesionali bideratzen zaizkie.

BI5.6 Familiarekiko komunikazioan eta harremanetan izandako gertaerei buruzko informazioa teknikariei transmititzen zaie, haren berri izaten dezaten eta ebalua dezaten.

BI5.7 Dagokion mailan, laguntza emozionala ematen zaio familiari, eta, behar izanez gero, unerako egokiak diren prozedurak egiteko behar den informazioa eskaintzen zaio.

BI5.8 Zaintzaile nagusiei informazioa eta orientabidea emateak erabiltzailea modu autonomoan moldatzea eta haien komunikazioa eta harreman soziala laguntzen du.

LB6: Pertsonen arreta ematean, oinarrizko jarraibideak eta komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzea, esleitutako kasuak hala eskatzen badu.

BI6.1 Esku-hartzea arreta jasotzen duen pertsonaren komunikazio- eta interakzio-testuinguruaren ezaugarrietara egokitzen da.

BI6.2 Komunikazio-sistema alternatiborik ohikoenak zailtasun jakinak dituzten pertsonen eguneroko bizitzako arreta-egoerak konpontzeko eta harreman soziala hobetzeko erabiltzen dira.

BI6.3 Komunikazio-baliabideak arreta jasotzen duen pertsonaren beharretara egokitzen dira, aurrez ezarritako esku-hartze planaren arabera.

BI6.4 Arreta jasotzen duen pertsonaren komunikazio-behar bereziak profesional eskudunei transmititzen zaizkie.

BI6.5 Zaintzaile nagusiei informazioa eta orientabidea emateak erabiltzailearen komunikazioan laguntzen du.

Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Erabiltzaileari eta haren inguruneari buruzko informazioa. Erabiltzailearentzako eta haren ingurunearentzako informazio- eta komunikazio-sistema alternatiboak. Autonomia fisikoa edo psikologikoa mantentzeko eta lantzeko eta oinarrizko ohiturak, aisialdikoak eta okupazio-jardueretakoak sortzeko jarduera indibidualak egiteko protokoloak. Laguntza teknikoak aplikatzeko protokoloak. Erabiltzailearen familiartekoekiko eguneroko harreman-egoerak. Funtzio kognitiboak mantentzeko eta lantzeko —orientatzeko sena, oroimena, arreta...— erabiltzen diren material arruntenak. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio alternatiborako materiala eta tresnak. Erabiltzaileen jarduerari eta bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko eta transmititzeko materiala. Ingurune baliabideei buruzko informazioa.

Lanaren emaitza edo produktuak

Komunikazioko, autodeterminazioko, harremanetako eta afektuko behar psikosozialak beteak dituzten erabiltzaileak eta autonomia-maila optimizatuak dutenak. Erabiltzaileen behar psikosozialak betetzen esku hartzen duten familiak eta ingurunea. Harreman errazak erabiltzailearen, profesionalaren eta familiarren artean. Diziplinarteko taldeari erabiltzailearen bilakaerari eta beharrei buruz noiz behinka transmititzen zaion informazioa. Informatuta eta motibatuta dagoen erabiltzailea eta bere ingurune baliabideak eskuratu ditzakeena.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Txosten pertsonala. Norbanako txostenak. Egin beharreko lanaren espezifikazio teknikoak. Profesional eskudunen idatziko eta ahozko orientabideak eta jarraibideak. Ingurune baliabideen eskuliburuak eta programak, kolektiborik espezifikokoak direnak. Erabiltzailearen jarduerak eta profesionalaren zereginak egiteko protokoloak. Kudeaketa-prozedurak. Bibliografia espezifikoa.

3. gaitasun-atala:

BIZIKIDETZA-UNITATEAREN KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK GARATZEA

Kodea: UC0251_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Jarduera-plana bizikidetza-unitatean egitea, taldeak diseinatutako esku-hartze programa, horrelakorik badago, esleitutako kasuaren behar eta eskaeretara egokituz.

B11.1 Lortutako informaziotik abiatuta, edo, hala dagokionean, esku-hartze taldeak diseinatutako programatik edo haien oharretatik abiatuta zehazten da egin beharreko lanen eta jardueren plana, bizikidetza-unitatearen ezaugarriak kontuan hartuta.

B11.2 Bizikidetza-unitateari buruzko informazioa detektatzean eta erregistratzean datu hauek hartzen dira kontuan: bizikidetza-unitateko kideak, lekuen egokitzapena, laguntza teknikoak, mantentze-lanen zerbitzuak, materialak, etab.

B11.3 Egin beharreko jarduerak segida egokian egin behar dira, denborak eta ahaleginak errentagarri egiteko.

B11.4 Aurrez egindako jarduera-plana garatuz eta haren segimendua eginez gero, egoeraren aldeko ebaluazioa egiten da bizikidetza-unitatean, eta erabiltzailearen arreta-irizpide eta -jarraibideetara egokitzen da; jarduerak segida egokian egin behar dira, denborak eta ahaleginak errentagarri egiteko.

LB2: Izakinak hornitzea eta kontrolatzea eta elikagaiak biltegitratzea eta kontserbatzea, ezarritako dieta-gomendioen arabera.

B12.1 Gastuen aurreikuspena eta behar diren izakinen hornidura familiako aurrekontuaren arabera eta zehaztutako jarduera-planaren arabera egiten dira.

B12.2 Eguneroko bizitzan behar diren elikagaiak eta gainerako tresnak badaudela egiaztatzen da, eta zerbait falta bada jakinarazi eta hornitu eta berriz jarri behar da kalitate-irizpideak, dietak eta aurrekontua kontuan hartuta eta bizikidetza-unitatearen beharren arabera.

B12.3 Elikagaiak biltegitratzeko eta kontserbatzeko, kontuan hartu behar da kokapena, eta behar bezala kontserbatzeko eta erabiltzailea autonomia izaten laguntzeko, ontzi egokietan gorde behar dira aldagai fisikoei, arrisku-faktoreei eta abarrei erreparatuz.

B12.4 Erabiltzaileak biltegitratze-, hornidura- eta kontserbazio-jardueretan eta abarretan parte hartzea sustatzen da, haren autonomia bultzatzeko, ezarritako jarduera-planaren jarraibideei jarraituz.

LB3: Elikagaiak bizikidetza-unitateko elikadura-beharren arabera manipulatzeko eta prestatzeko, unean indarrean dauden higie-arauak betetz, eta, dagokionean, dieta bereziei buruzko medikuaren aginduei erreparatuz.

B13.1 Menuak bizikidetza-unitateko kideen nutrizio-beharretara egokituz egiten dira, dieta bereziei buruzko medikuaren aginduak errespetatuz.

B13.2 Sukaldaritzako oinarritzko elaborazioak egiteko, kontuan hartzen dira elikagai gordinak tratatzeko eta/edo elikagaiak manipulatzeko, eta prozesatzeko, prestatzeko eta haiei akabera emateko teknika egokiak, produktu bakoitzaren ezaugarriak erreparatuz.

B13.3 Prozesuan erabiltako tresna eta ekipoa ezarritako maiztasunez, produktuekin eta prozedurekin garbitzen dira.

B13.4 Platerak prestatzeko eta prozesatzeko jardueretan erabiltzaileek parte hartzea sustatzea da, haien autonomia, garapena eta egokitzapen pertsonala eta soziala bultzatzeko, esku-hartze planeko jarraibideei jarraituz.

B13.5 Ezarritako jarraibideei jarraituz betetzen dira elikagaiak manipulatzeko eta prozesatzeko segurtasun- eta higie-arauak.

LB4: Bizigarritasun-, higie- eta ordena-kondizio egokiak bermatzeko eta mantentzeko behar diren etxeko mantentze-lanak egitea.



- BI4.1 Jasotako informazioaren bitartez, etxeko garbiketa-jarduerak eta mantentze-lanak antola daitezke, ezarritako jarduera-planaren eta familia-unitatearen ezaugarrien arabera.
- BI4.2 Etxea behar bezala mantentzeko behar diren higiene-ohitura osasungarriari buruzko informazioa behar bezala transmititzen zaio familiari eta/edo erabiltzaileari.
- BI4.3 Lurzoruak, gainazalak, tresnak, altzariak eta komun-ontziak garbitzeko, produktu egokiak erabiltzen dira, eta kasu bakoitzean egokiena den prozedura aplikatzen da.
- BI4.4 Garbiketa- eta higiene-produktuak erosteko eta jartzeko, aurrekontura, lekuetara, produktuaren ezaugarrietara eta segurtasun-arauetara egokitzen da.
- BI4.5 Hondakinak eta zaborra sailkatzeko eta ezabatzeko, unean indarrean dagoen araudia kontuan hartzen da, eta gaika birziklatzen saiatzen da.
- BI4.6 Jantziak eta arropa zuria garbitzen, lisatzen eta berrikusten ahalik eta denbora gutxiena pasatzen da, eta ezarritako prozedurei jarraitzen zaie.
- BI4.7 Lanaldia edo zereginak amaitutakoan, ziurtatzen da gaiak ondo kokatuta eta ordenatuta daudela, iturriak itxita daudela, etxetresna elektrikoak egoera onean daudela, gasaren giltza ondo itxita dagoela eta abar, kasu bakoitzeko segurtasun-arauek kontuan hartuta.
- BI4.8 Erabiltzaileak etxeko lanetan parte hartzea sustatzen da, haren autonomia, garapena eta egokitzapen pertsonala bultzatzeko, ezarritako jarduera-planeko jarraibideei jarraituz.

LB5: Ohiko etxebizitzako espazioa antolatzea, agindutako laguntza teknikoak aplikatuz, irisgarritasun- eta mugikortasun-kondizioak optimizatuz eta istripuak izateko egon daitezkeen arriskuak prebenituz.

- BI5.1 Segurtasun- eta funtzionaltasun-irizpideak kontuan izaten dira etxeko guneak antolatzeko beharrak detektatzean.
- BI5.2 Ohiko etxebizitzako espazioa antolatzeari buruz detektatutako beharrei buruzko informazioa behar bezala transmititzen zaio erabiltzaileari.
- BI5.3 Altzariak eta oinarrizko elementuak kokatzeko orduan bizikidetzaren unitateko kideen irisgarritasuna eta erabilera ona ziurtatzen da, estetika- eta apainketa-lehentasunak errespetatuz.
- BI5.4 Erabiltzaileari alarma-sistemen, telealarmaren, telefono mugikorraren eta telelaguntzaren erabilerari buruzko informazioa ematen zaio, eta, hala, hondo aplikatzea eta erabiltzea bermatzen da.
- BI5.5 Erabiltzaileak jarduerak egiten parte hartzea sustatzen da, haren autonomia bultzatzeko, ezarritako jarduera-planaren jarraibideei jarraituz.
- BI5.6 Aplikatutako laguntza teknikoak erabiltzailearen behar espezifikoekin bat datozela eta haiek erabiltzaileari eguneroko bizitzan moldatzen laguntzen diotela ziurtatzen da epe egokietan.
- BI5.7 Alarma-sistemak eta/edo aplikatutako laguntza teknikoak ondo funtzionatzen dutela berrikusten da aldizka.
- BI5.8 Aparatua eta laguntza teknikoak erabiltzean sortutako gorabeherei buruzko informazioa familiari eta/edo diziplinarteko taldeari transmititzen zaio, haien zerbitzua hobetzeko aldaketak eta hobekuntzak egitea errazteko.

LB6: Etxearen kudeaketan laguntzea, eskaerak eta behar bereziak detektatuz, profesionali eta zerbitzu eskudunei bideratzeko.

- BI6.1 Eguneroko jarduerak egiten lortutako informazioari esker, eskaerak eta behar bereziak detekta daitezke.
- BI6.2 Etxeko instalazio eta etxetresna elektrikoetan hutsak detektatuz gero, dagozkien profesionali jakinarazten zaie, hala behar izanez gero.
- BI6.3 Konponketa txikiak eta ordezkapen txikiak egiten dira, etxebizitzaren bizigarritasuna mantentzeko, betiere unean indarrean dauden segurtasun-arauek kontuan hartuz.
- BI6.4 Kudeatu behar den aurrekontua egiteko, aurrekontua egitea beharrezkoa izanez gero, kontuan hartzen dira oinarrizko beharrak asetzea, detektatutako lehentasunak (osasun-egoera, mendekotasun-maila, familia-unitateko kideak, etab.), norberaren diru-sarrerak eta/edo jasotako gizarte-laguntzak.
- BI6.5 Bizikidetzaren unitatearen gastuak eta kontsumo-ohiturak eskura dauden baliabideetara egokitzen dira, hautemandako beharrak asetzen direla ziurtatuz, urritasunak detektatuz eta profesional eskudunei jakinaraziz.
- BI6.6 Erabiltzaileak eta/edo familiak etxearen kudeaketan parte hartzea sustatzen da, haren autonomia, garapena eta egokitzapen pertsonala eta soziala bultzatzeko, lan-planeko jarraibideei jarraituz.



Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Erabiltzailearen dokumentazio pertsonala eta kudeaketa ekonomikoari buruzko dokumentazioa. Etxeko higienerako materialak. Etxetresna elektrikoak. Zerbitzatzeko ontziak. Elikagaiak prestatzeko eta kontserbatzeko ontziak eta tresnak. Bizikidetz-unitateko jarduera-plana. Zereginak egiteko protokoloak. Zerbitzu-erregistroak. Etxeko segurtasun-neurriak. Etxeko guneak eta altzariak erabiltzailearen beharretara egokituta. Etxeko arreo eta arreo pertsonala. Lehengaiak, gordinak eta/edo prestatuak, menuak egiteko. Egokitzeko materiala. Garbiketarako produktuak. Erabiltzailearen egoerara egokitutako laguntza teknikoak: alarma-sistemak, telelaguntza.

Lanaren emaitza edo produktuak

Etxe-ingurunea kondizio egokietan, bizikidetz-unitatearen bizitza-kalitatea bermatzeko. Erabiltzaileak dieta- eta elikadura-beharrak aseta dituztela. Etxebizitza mantentzeko eta hobetzeko eskaerak eta behar bereziak detektatzea eta ebaztea.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Esku-hartzeko behar den informazio medikoa, soziala eta psikologikoa. Mediku- eta dieta-aginduak. Laguntza teknikoen katalogoak. Etxetresna elektrikoen mantentze-lanetarako eta funtzionamendurako jarraibideak. Garbiketarako tresnak erabiltzeko, maneiatzeko eta biltegitatzeko jarraibideak. Gertakizunak ebazteko baliabideen telefono-datuen zerrenda. Etxean arriskuak prebenitzeko arauak eta segurtasun-arauak.

III PRESTAKUNTZA

1. prestakuntza-modulua:
ETXEZ ETXEKO HIGIENEA ETA ARRETA SANITARIOA

2. prestakuntza-modulua:
ETXEZ ETXEKO ARRETA ETA LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

3. prestakuntza-modulua:
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ETA FAMILIA-ELIKADURA

4. prestakuntza-modulua:
PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO LANEKOAK EZ
DIREN JARDUNBIDEAK ETXEAN

1

2

3

4



1

1. prestakuntza-modulua:

ETXEZ ETXEKO HIGIENEA ETA ARRETA SANITARIOA

Kodea: MF0249_2

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC0249_2: Arreta soziosanitarioa behar duten pertsonentzako etxez etxeke arreta fisikoko esku-hartzeak.

Iraupena: 170 ordu

1.1. prestakuntza-atala:

MENDEKO PERTSONEN ARRETA HIGIENIKO-SANITARIOKO BEHARRAK ETA EZAUGARRIAK

Kodea: UF0119

Iraupena: 70 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 lanbide-burutzapenarekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Mendeko pertsonen eta haren inguruak dituzten arretako ezaugarri eta behar nagusiak deskribatzea, arreta zuzeneko profesionalak izan behar dituen jarrerak eta balioak eta mendeko pertsonetikiko eta haren ingurunearekin izan behar dituen harremanak zehaztuz.

E11.1. Esku hartzen den kolektiboen aldaketa biologikoak, psikologikoak eta sozialak pertsonak eguneroko bizitzan moldatzeko haiek eragiten dizkieten zailtasunekin erlazionatzea.

E11.2. Identifikatzea helduek eta/edo desgaitasunen bat dutenek pertsonalki eta/edo sozialki okerrera egiten dutenean.

E11.3. Etxeko arretako zerbitzura eta erreferentzia-profesionalera egokitzeko aldi mendeko pertsonengan eta haien ingurunean detektatutako jarrera eta portaera bereziak deskribatzea.

E11.4. Mendeko pertsona eta kolektiboekiko esku-hartze sozialeko printzipio etikoak azaltzea.

E11.5. Behar bereziak dituzten pertsonekin esku-hartze profesionaletan izan beharreko jarrerak eta balioak azaltzea.

E11.6. Arreta fisikoko beharrak dituzten pertsonekin jardutean etxean:

- Erabiltzaileak okerrera egiten badu, identifikatzea, eta zehaztea horrek zer eragin duen autonomia pertsonalean eta eguneroko bizitzako oinarrizko gauzetan moldatzeko orduan, bai pertsonalki, bai sozialki.
- Agertzen diren portaera profesionalak identifikatzea.
- Erabiltzailearen eta haren ingurunearen parte-hartzea identifikatzea.
- Erabiltzailearekiko eta/edo haren familiarekiko komunikazioan eta harremanetan egokiak diren jarrera profesionalak zehaztea.
- Erabiltzailearekin eta haren ingurunearekin egindako harremanak identifikatzea (afektibitate-, arau- eta nortasun-harremanak).

A2: Higiene pertsonaleko eta oheak prestatzeko teknikak egokitzea eta aplikatzea etxean, erabili ohi diren produktuak, materialak eta tresnak aukeratuz, erabiltzailearen egoeraren eta teknika-motaren arabera.



EI2.1 Mendeko pertsona batek behar dituen higiene-arreta motak zehaztea haren osasun-egoeraren eta mendekotasun-mailaren arabera, batez ere helduen eta desgaitasunen bat dutenen kasuan, eta haren inguruak

bete behar dituen kondizio higieniko-sanitarioak identifikatzea.

EI2.2. Azaltzea zein diren azalaren ezaugarri anatomofisiologikoak, presioagatiko ultzerak sortzeko mekanismoak, zer gorputz-ataletan azaltzen diren gehien eta zein diren prebentzio-neurri nagusiak eta haiek tratatzeko eta/edo prebenitzeko osasun-produktuak.

EI2.3 Profesionala babesteko neurriak eta garbitasun eta higiene pertsonaleko prozedurak deskribatzea eta aplikatzea, horretarako behar diren produktuak, materialak eta laguntza teknikoak zehaztuz pertsonaren egoeraren eta beharren arabera, baita pertsona inkontinenteentzat eta/edo kolostomia egin zaien pertsonentzat bereziak direnak ere.

EI2.4 Protesiak garbitzeko eta kontserbatzeko teknikak deskribatzea eta aplikatzea, behar diren materialak zehaztuz erabiltzailearen egoeraren eta beharren arabera.

EI2.5 Erabiltzailea hilez gero egin beharreko oinarriko prozedurak deskribatzea (meztitzeari buruzkoak), hori behar bezala egiteko behar diren materialak eta produktuak zehaztuz, eta simulazio-egoeretan aplikatzea.

EI2.6 Mendeko pertsonak etxean dituzten eta gehien erabiltzen dituzten garbiketarako eta atsedenerako ohe-motak, gehigarri-motak eta laguntza tekniko motak azaltzea eta identifikatzea, eta gero erabiltzeko prestatze- eta biltze-teknikak aplikatzea.

EI2.7. Hainbat ohe-mota egiteko teknikak aplikatzea, pertsonaren erosotasun-beharren eta mendekotasun-mailaren arabera.

EI2.8. Erabiltzaileak eta haren inguruneak erabiltzailearen behar soziosanitarioen arreta-jardueretan parte hartzea bultzatzea eta parte-hartze hori identifikatzea, erabiltzailearen autonomia eta autodeterminazioa sustatzen lagunduz.

Edukiak:

1. Mendeko pertsonen ezaugarrien eta beharren identifikazioa

- Zahartze-prozesua.
- Gaixotasuna eta susperraldia.
- Desgaitasunak: kontzeptua.
- Saillapena eta etiologiarik ohikoena. Ezaugarriak eta beharrak.
- Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.

2. Etxeko arretaren eremua mugatzea

- Mendeko pertsonak dituzten bizikidetz-unitateak: motak eta funtzioak. Zaintzaile nagusien beharrak eta arriskuak.
- Mendeko pertsonentzako etxez etxeko zuzeneko arretako zerbitzuak, programak eta profesionalak: ezaugarriak eta egitura funtzionala.
- Diziplina arteko taldea eta zuzeneko arretako profesionalaren zeregina.
- Zaintzaile nagusiak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
- Etxez etxeko arretako oinarriko hiztegia erabiltzea.
- Behar bereziak dituzten pertsonetako eta kolektiboetako esku-hartze sozialeko printzipio etikoak. Jarrerak eta balioak.
- Mendeko pertsonetako esku-hartzeko printzipio etikoak kontuan hartzea.
- Informazio pertsonala eta medikoa maneiatzeko orduan konfidentzialtasuna ziurtatzea.
- Mendeko pertsonen intimitatea errespetatzea.
- Etxez etxeko laguntzako profesionalak higiene pertsonala eta itxura fisikoa zaintzea.
- Pertsonen osoko arreta. Laguntza gizatiartzeko teknikak.
- Laguntza-erlazioaren dinamika: egokitzapena, zailtasunak, mugak eta arrisku psikologikoen prebentzio.
- Dolu-egoeretako esku-hartzea.
- Arreta fisikoko jardueren bilakaera funtzionala eta garapena aztertzea eta erregistratzea. Etxeko egoeretara aplikatutako aztertze-teknikak eta -tresnak.
- Zainketa eta higiene pertsonalerako laguntza teknikoak.

3. Mendeko pertsonaren higiene eta garbitasunerako tekniken aplikazioa

- Larruazal-organoaren printzipio anatomofisiologikoak eta gorputzeko higienarako oinarriak.
- Patologiarik ohikoena.



- Gorputzeko higiene eta garbitasunerako teknikak, etxez etxeko laguntza motaren arabera.
- Presioagatiko ultzerak. Prebentzioa eta tratamendua.
- Ohe-motak, gehigarriak eta arropa zuria. Oheak egiteko teknikak.
- Gaixo inkontinenteen eta kolostomia egin zaienen zainketak.
- Infekzioen prebentzioa eta kontrola.
- Hil ondoko zainketak. Gorpua prestatzea.
- Protesiak garbitzeko eta kontserbatzeko teknikak.
- Mendeko pertsonaren eta haren ingurunearen autonomia bultzatzea, haren higiena eta garbitasuna hobetzeko.

1.2. prestakuntza-atala:

MENDEKO PERTSONEI ELIKAGAIAK ETA TRATAMENDUAK EMATEA ETXEAN

Kodea: UF0120

Iraupena: 50 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik emateko aginduak eta hotz- eta bero-tratamendu lokalak aplikatzeko aginduak betetzea, eskatutako teknikaren eta aginduaren arabera erabili behar den materiala zehaztuz eta antolatuz.

E11.1. Hotzak eta beroak giza gorputzean duen eragina deskribatzea, eta hotza eta beroa aplikatzeko aholkuak eta kontraindikazioak deskribatzea.

E11.2. Medikamentuak hartzeko biderik ohikoenen ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak deskribatzea.

E11.3. Medikamentuak hainbat bidetatik emateko behar diren materialen ezaugarriak azaltzea.

E11.4. Aerosolterapia- eta oxigenoterapia-teknikak aplikatzeko prozedurak azaltzea, baita haiek ondo emateko behar diren materialak ere.

E11.5. Erabiltzaileak eta haren inguruneak erabiltzailearen behar soziosanitarioen arreta-jardueretan parte hartzea bultzatzea eta parte-hartze hori identifikatzea, erabiltzailearen autonomia eta autodeterminazioa sustatzen lagunduz.

E11.6. Medikamentuak ematearekin lotutako arrisku nagusiak deskribatzea farmako-motaren, emateko bidearen, pertsonaren ezaugarrien eta medikuaren jarraibidearen arabera.

E11.7. Bizi-konstanteak hartzeko teknika jakin batzuk aplikatzea etxeko zainketako protokoloan.

E11.8. Medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik ematea hainbat egoeratan, aurrez ezarritako argibideei jarraituz.

A2: Hainbat dieta-mota aztertzea eta jaten emateko eta hondakinak jasotzeko laguntza-teknikarik egokiena aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera, aurrez ezarritako jarraibideei jarraituz.

E12.1 Dieta osasungarri baten konposizioa aztertzea, pertsona baten behar nutritibo eta dietetikoak deskribatuz haren fisiologia-, patologia- eta jarrera-ezaugarrien arabera.

E12.2 Eguneko eta/edo asteko menuen proposamenak egitea, erabiltzaileen ezaugarrien eta dieta-aginduen arabera.

E12.3 Aparatu digestibo, endokrino eta urinarioen ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak deskribatzea.

E12.4 Adineko pertsonen eta eriondoen elikadura-ezaugarri espezifikoak azaltzea.

E12.5 Hainbat patologiarik aplikatutako dieta-aginduak erabiltzea, dietak haietako bakoitzean duen eraginak aztertuz.

E12.6 Etxean elikagaiak ahotik emateko teknikak deskribatzea, pertsonaren mendekotasun-mailaren arabera, eta jaten laguntzeko behar diren materialak azaltzea.



EI2.7. Hainbat erabiltzaile motaren hondakinak jasotzeko teknikarik ohikoenak azaltzea, ezarritako arau higieniko-sanitarioak deskribatuz.

EI2.8. Jaten emateko hainbat laguntza-teknika aplikatzea, erabiltzailearen ezaugarrien eta beharren arabera.

EI2.9. Hainbat erabiltzailearen hondakinak jasotzea, mendekotasun-mailaren eta beharren arabera, ezarritako protokoloak aplikatuz.

Edukiak:

1. Bizikidetzaren unitatearen menuaren plangintza

- Elikadura- eta nutrizio-printzipioak.
- Sistema digestibo eta endokrinoen printzipio anatomofisiologikoak. Patologiarik ohikoena.
- Elikadura- eta nutrizio-kontzeptuak. Elikagaiak. Saikapen funtzionala.
- Energia eta mantentze- eta buruzko gomendioak. Ahorakin gomendatua. Nutrizio-etiketatzeari interpretatzea.
- Dieta osasungarria. Dietaren kalitatea.
- Gizarte garatuaren elikadura-arazoak.
- Dieta-motak.
- Familiaren dieta, eta eguneko eta asteko menuen plangintza.
- Etxeko neurriak eta anoak.
- Adindunaren eta eriondoaren elikadura.
- Menuen plangintza.
- Mendeko pertsona bakoitzaren elikadura- eta nutrizio-egoera jakina kontuan hartzea.

2. Elikatze-tekniken erabilera.

- Ahotik elikatzea, elikadura enterala.
- Jaten emateko laguntza teknikoak.
- Jaten emateko laguntza.

3. Hondakinak jasotzea

- Iraizkinak jasotzeko bitartekoak eta materialak.
- Iraizkinak kentzea.
- Arau higieniko-sanitarioak.
- Higiene pertsonala eta itxura fisikoa zaintzea.
- Mendeko pertsonaren eta haren familiarren intimitatea errespetatzea.

4. Medikamentuak ematea etxean

- Metabolismoaren bilakaera bizi-zikloan.
- Farmakologia orokorraren printzipioak.
- Sistema digestibo eta endokrinoen eta arnas sistema eta iraitz-sistemaren printzipio anatomofisiologikoak.
- Erlazionatutako patologia.
- Bizi-konstanteak.
- Medikamentuak prestatzeko eta ahotik, uzkitik eta bide topikotik emateko teknikak.
- Aerosolterapia- eta oxigenoterapia-teknikak.
- Hotza eta beroa aplikatzeko teknikak.
- Farmakoen arriskuak.
- Botikinak osatzea eta mantentzea.

1.3. prestakuntza-atala:

MENDEKO PERTSONEN AHALMEN FISIKOAK HOBETZEA ETA LEHEN LAGUNTZAKO ZERBITZUAK EMATEA ETXEAN

Kodea: UF0121



Iraupena: 50 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB2 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Erabiltzaile bat lekuz aldatzeko, mobilizatzeke, ibiltzeko eta posizio egokian jartzeko teknikak aplikatzea, haren mendekotasun-mailaren arabera.

E11.1. Mendeko pertsonak mobilizatzeke, ibiltzeko eta ohean posizio egokian jartzeko tekniken eta laguntza teknikoek ezaugarriak eta aplikaziorik ohikoenak deskribatzea, haien mugitzeko gaitasuna mantentzen eta hobetzen laguntzen dutenak, haien egoeraren eta kondizioen arabera.

E11.2. Lokomozio-aparatuaren ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak azaltzea.

E11.3. Erabiltzaileak eta haren zaintzaile nagusiak hezten, orientatzen eta parte har dezaten laguntza ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituzten alderdi hauen egoera jakinetan, erabiltzaileen mugitzeko gaitasuna mantentzeko eta hobetzeko eta zaintzaile nagusiei lesioak prebenitzeko: lekuz aldatzea, mobilizatzea, ibiltzea, posizio egokian jartzea, laguntza teknikoak eta segurtasuna mantentzea eta lekualdaketa-zerbitzua bera.

E11.4. Mobilizatzeke, lekuz aldatzeko eta ibiltzeko teknikak aplikatzea, pertsonaren erosotasun-beharren eta mendekotasun-mailaren arabera.

A2. Larrialdietako osasun-laguntzako teknikak aplikatzea, egoeraren eta aplikagarritasun-mailaren arabera egokiena zein den zehaztuz.

E12.1. Traumatismoak —hausturak, zaintiratuak eta luxazioak— eragiten dituzten zeinu eta sintomarik ohikoenak azaltzea, immobilizazio-maniobra egokiak zehaztuz.

E12.2. Bihotz-biriketako bizkortzea egiteko tekniken edukiak eta aplikazio-segidak azaltzea.

E12.3. Erredura-motak azaltzea haien hedaduraren eta sakoneraren arabera, haletako bakoitzerako egokienak diren larrialdietako osasun-laguntzako neurriak deskribatuz.

E12.4. Zauri- eta odoljario-motak azaltzea, haien motaren eta egoeraren arabera berehala egin beharreko maniobrak deskribatuz.

E12.5. Etxeko larrialdietako botikin batek oro har gutxienez izan behar dituen elementuak eta haien argibideak deskribatzea.

E12.6. Intoxikazio-mota nagusiak bereiztea adierazgarrienak diren sintomengatik, eta sartze-bideak eta ezabatze-metodoak zerrendatzea.

E12.7. Gertakariari eta istripua izan duenaren egoerari buruz urruneko kontsulta bateko mediku bati zer informazio eman behar zaion eta nola eman behar zaion azaltzea.

E12.8. Larrialdietako botikin baten izan behar dituen osasun-material eta -produktuen oinarritzko zerrenda egitea.

E12.9. Lehen laguntzako teknikak aplikatu behar diren gelako simulazio-egoeretan, testuinguru nahikoa dutenetan:

- Heskailuak eta ferula arruntak jartzea.
- Bihotz-biriketako bizkortzearen oinarritzko maniobrak egitea.
- Hainbat lekutako hausturak immobilizatzeke maniobrak egitea (bizkarrezurra, goiko gorputz-adarra, beheko gorputz-adarra eta politraumatismoa).
- Odoljarioak inhibitzeke maniobrak egitea.

Edukiak:

1. Mendeko pertsonaren mugikortasuna

- Giza gorputza sostengatzeko eta mugitzeko printzipio anatomofisiologikoak.
- Lokomozio-aparatua.
- Lokomozio-aparatuaren patologiarik ohikoenak.
- Artikulazioen biomekanika.

2. Mobilizatzeke, lekuz aldatzeko eta ibiltzeko teknikak erabiltzea

- Posizio anatomikoak.
- Mendeko pertsonak ibiltzeko, lekuz aldatzeko eta mobilizatzeke teknikak eta laguntza teknikoak.
- Ohean posizio egokian jartzeko teknikak.
- Mendeko pertsonari eta haren zaintzaile nagusiei orientatzea.



- Mendeko pertsonaren eta haren ingurunearen autonomia bultzatzea, haren mugikortasuna eta egoera fisikoa hobetzeko.

3. Bizi-konstanteak hartzea

- Tenperatura.
- Arnas maiztasuna.
- Presio arteriala.
- Bihotz-maiztasuna.
- Horiek hartzea.

4. Segurtasuneko eta lehen laguntzako tekniken aplikazioa

- Lehen laguntzak.
- Intoxikazioak.
- Traumatismoak. Heskailuak eta immobilizazioak.
- Bihotz-biriketako bizkortze-teknikak.
- Erredurak.
- Zauriak eta odoljarriak.
- Intoxikazioak.
- Larrialdietako botikina.
- Urruneko kontsultak.
- Mendeko pertsonaren inguruko arriskuak prebenitzea.
- Autobabeserako-neurriak.
- Lan-arriskuen prebentzioari arreta berezia.

2. prestakuntza-modulua: ETXEZ ETXEKO ARRETA ETA LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

Kodea: MF0250

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC0250_2 Arreta soziosanitarioa behar duten pertsonentzako etxez etxeoko arreta psikosozialeko esku-hartzeak.

Iraupena: 210 ordu

2.1. prestakuntza-atala:

Mendeko pertsonen mantentze eta errehabilitazio psikosoziala etxean

Kodea: UF0122_2

Iraupena: 80 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.



Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Mendeko pertsonen ezaugarri eta behar psikosozialak ezagutzea eta aztertzea, zuzeneko arretako profesionalak mendeko pertsonekin eta haien ingurunearekin agertu beharreko jarrerak eta balioak zehaztuz.

E11.2. Mendeko pertsona bat dagoen bizikidetzaren bateko ezaugarri psikosozial nabarmenenak eta horrek sortzen duen laguntza psikosozialeko behar nagusiak identifikatzea:

- Informatzekoak, orientatzekoak, estimulatzekoak, antolatzekoak, kontrolatzekoak eta segimendukoak.
- Laguntza psikoafektibokoak eta emozio-hustuketakoak.
- Interakzio-laguntzakoak.
- Kudeaketa pertsonalak ebazten laguntzekoak.
- Erlazionatutako eta aisialdietako jardueretara laguntzekoak eta joatekoak.

E11.3. Adineko pertsonen eta/edo desgaitasunen bat dutenek eta haien bizikidetzaren-inguruneak, batez ere haien zaintzaile nagusiek, pertsonalki eta/edo sozialki okerrera egin dutelako oinarriko agerpenak identifikatzea, eta laguntza psikosozialeko beharrak eta arrisku-egoerak zehazteko informazioa ateratzea, zerbitzuak ezarritako protokolo batek gidatuta aztertuz.

E11.4. Etxeko arretako zerbitzura eta erreferentzia-profesionalera egokitzeko aldi mendeko pertsonengan eta haien ingurunean detektatutako jarrera eta portaera bereziak deskribatzea, baita horrekin lotutako gatazka-egoera nagusiak eta jarrera- edo izaera-arazoak ere.

E11.5. Mendeko pertsonen esku-hartze sozialeko printzipio etikoak azaltzea, eta erabiltzaileekin, familiarekin, ingurunearekin eta bestelako profesionalen esku-hartze profesionalarekin, hainbat egoeratan, izan beharreko jarrerak eta balioak azaltzea, baita dolu-egoeretan ere.

E11.6. Hainbat pertsonen arretako esku-hartzeak deskribatzen dituen kasu praktikoko batetik abiatuz, haien mendekotasun-mailaren eta egoera pertsonal eta familiararen arabera, zehaztea:

- Bere zeregin profesionala ezarritako lan-planari dagokionez, diziplinarterko lana eta beste profesional batzuek emandako orientazioak errespetatuz.
- Bere zeregina, erabiltzaileari eta haren familiari buruz jasotako informazioari eta informazio hori talde teknikoari eta beste profesional batzuei transmititzeari dagokionez.

E11.7. Aurrez diseinatutako azterketa-tresnak aztertzea eta etxetik etxeko laguntza jasotzen duten erabiltzaileei egokitzea eta aplikatzea eguneroko bizitzako jardueretan.

A2. Aurreikusitako jardueretara egokitutako laguntza psikosozialeko estrategiak aurrez ezarritako programa batean aplikatzea.

E12.1. Pertsona helduen, desgaitasunen bat dutenen eta gaixoen motibazioaren eta ikaskuntzaren ezaugarri espezifikoak deskribatzea, jarduera-estrategiarik egokienak definituz.

E12.2. Ahalmen kognitiboak (oroimena, arrazonomendua, arreta, orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala, hizkuntza...) mantentzeko eta hobetzeko ariketak eta jarduerak egiteko material egokiak maneiatzea eta aplikatzea, aurreikusitako motibazioa eta ikaskuntzak lortzeko aplikatu beharko liratekeen esku-hartze estrategiak zehaztuz.

E12.3. Erabiltzaileen behar espezifiko bidez eta jarduera programatu bidez (errehabilitatzekoak, ahalmen kognitiboak mantentzekoak...) behar bezala zehaztuak dituzten ezaugarrietako etxeko arretako hainbat egoeratan, erabiltzaileen parte-hartzea sustatzeko eta haren ikaskuntzan laguntzeko jarduera-estrategiarik egokienak identifikatzea eta aztertzea.

E12.4. Dagozkien jarduera-protokoloetatik abiatuta, aurreikusitako jarduerak eta/edo ariketak identifikatzea eta aplikatzea.

E12.5. Pertsona helduen, desgaitasunen bat dutenen eta eriondoen gatazka-egoera nagusiak eta portaera-arazo bereizgarriak azaltzea.

E12.6. Behar bereziak dituzten pertsonen etxetik etxeko arretarako, jarrera aldatzeko eta gatazkak konpontzeko teknika eta prozedura egokienak deskribatzea, aztertzea eta aplikatzea.

A3: Harreman sozialeko trebetasunekin laguntzeko eta haiek garatzeko esku hartzen den kolektiboetara egokitutako teknikak eta estrategiak aplikatzea.

E13.1. Hainbat motatako mendeko pertsonen (adindunak, desgaitasunen bat dutenak, eriondoak) harreman sozialen oinarriko ezaugarriak eta beharrak deskribatzea.

E13.2. Adindunei eta/edo desgaitasunen bat dutenei arreta emateko proiektu eta programei buruz jasotako informaziotik abiatuta, erabiltzaileen harreman sozialeko beharrak asetzeko alderdiak identifikatzea haien elementuetan (helburuak, jarduerak, metodologia, jarduera-irizpideak...)



EI3.3. Ondorioztatzea zein diren etxez etxeko zuzeneko arretan egin behar diren esku-hartzeak eta harreman berriak sortzea bultzatzeko eta erabiltzailearen eta haren ingurunearen arteko komunikazioa hobetzea bultzatzeko egokienak diren irizpideak eta estrategiak.

EI3.4. Helduen eta/edo desgaitasunen bat dutenen harremanetarako ahalmenak mantentzea bultzatzen duten adierazpen- eta komunikazio-bitartekoak eta -baliabideak identifikatzea.

EI3.5 Behar bezala zehaztutako kasuetan, familiako, bizikidetzako eta auzoko testuinguruko eguneroko egoeretan erabiltzailearen harreman soziala bultzatzen duten trebetasun sozialak garatzeko eta haietan laguntzeko estrategiak eta jarduerak zehaztea.

EI3.6. Etxeko egoera espezifikotara egokitutako trebetasun sozialak garatzeko eta haietan laguntzeko teknikak eta estrategiak aplikatzen laguntzea.

EI3.7. Ingurunearekiko harreman soziala hobetzeko eta mantentzeko dauden baliabide informatikoak aplikatzea (Interneteko sarbidea, posta elektronikoa...), erabiltzaileak haiek erabil ditzan bultzatzea, adibidez, posta arruntaren ordeztu.

Edukiak:

1. Mendeko pertsonen etxez etxeko arreta psikosozialera aplikatutako oinarrizko psikologia

- Oinarrizko kontzeptuak.
- Bizi-zikloa, portaera, prozesu kognitiboak, motibazioa, emozioa, asaldurak. Zahartze-prozesua, gaixotasuna eta eriondoa.
- Aldaketa biopsikozozialak. Bizi-kalitateko gorabeherak. Ingurune sozioafektiboaren eta adineko pertsonaren sexualitatearen bilakaera. Arretako eta osoko laguntzako behar bereziak. Adineko pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa. Gaixotasunarekin eta eriondoarekin lotutako oinarrizko kontzeptuak, ezaugarriak eta beharrak.

2. Adineko pertsonen eta desgaitasunen bat dutenen harreman soziala

- Mendeko pertsonen harreman sozialaren ezaugarriak. Oinarrizko trebetasun sozialak.
- Harreman sozialetarako zailtasunak. Gatazka-egoerak.
- Harreman soziala sustatzeko teknikak. Laguntzeko eta harreman sozialetarako jarduerak. Esku hartzeko estrategiak.
- Bitartekoak eta baliabideak. Teknologia berrien aplikazioak, asoziazionismoa, ingurune baliabideak eta haiek eskuratzeko bideak.

3. Mendeko pertsonari eta haren zaintzaile nagusiei orientatzea

- Etxeko egoeretara aplikatutako aztertze-teknikak eta -tresnak.
- Arreta-jardueren bilakaera funtzionala eta garapena aztertzea eta erregistratzea.
- Behaketa-tresnak.

4. Giroa autonomia pertsonala, komunikazioa eta harreman soziala sustatzeko faktore gisa

- Guneak banatzea eta apaintzea.
- Etxeko materialak erabiltzea.

5. Esku-hartze psikosozialeko estrategiak prestatzea

- Autonomia psikosozialeko ohiturak mantentzea eta lantzea etxeko eguneroko egoeretan.
- Esku-hartzeko teknikak, prozedurak eta estrategiak.
- Gatazkak konpontzeko teknikak.
- Jarrera aldatzeko prozedurak eta estrategiak.
- Harreman sozialetan, kudeaketak ebatzen eta familia-ingurunean laguntzeko eta babesa emateko esku hartzea.
- Pertsoneri osoko arreta emateko prestutasuna.
- Laguntza gizatiartzeko tekniken lehenetsuna.

2.2. prestakuntza-atala:

MENDEKO PERTSONEI EGUNEROKO KUDEAKETETAN LAGUNTZEA



Iraupena: 50 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB2 lanbide-burutzapenarekin

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Erabiltzaileei laguntzea eta babesa ematea eguneroko bizitzako jarduerak egitean, haren autonomia bultzatuz.

EI1.1. Mendeko pertsonen eguneroko bizitzan moldatzeko orduan behar dituzten laguntza nagusiak identifikatzea.

EI1.2. Erabiltzaileen autonomian, segurtasunean, komunikazioan, bizikidetzan eta harreman sozialean eragiten duten etxeko eta ingurune giro-faktoreak, espazio-elementuak eta materialak identifikatzea.

EI1.3. Autonomia pertsonaleko ohiturak sortzeko, mantentzeko eta hobetzeko esku-hartze teknikak eta prozedurak deskribatzea, esku hartzen den kolektiboarentzat egokienak diren estrategiak identifikatuz eta aztertuz.

EI1.4. Etxeko guneak, altzariak eta tresnak nola banatu zehaztea, banatzea, banaketa eguneratzea eta seinaleztatzea, erabiltzaileek beraiek parte hartuz, pertsonaren behar psikosozialak mendekotasun-maila, ohiturak eta segurtasuna kontuan hartuta, erabiltzailearen autonomia pertsonala eta soziala sustatzeko.

EI1.5. Aurreikusitako aztertze-teknikak eta -tresnak aplikatzea, jarduerak garatzekoari dagokionak zein pertsonaren adierazpenari dagozkionak, behar bereziak, arrisku-faktoreak, bilakaera fisikoko eta psikosozialeko faktoreak identifikatuz eta lortutako datuak ezarritako prozeduraren arabera erregistratuz.

EI1.6. Etxean eguneroko egoeretan moldatzeko edo hainbat erabiltzaile motaren aurrean moldatzeko, laguntzea eta babesa ematea, haren autonomia pertsonala bultzatzeko irizpideak eta estrategiak aplikatuz. Jarduera gauzatzeko espazio- eta material-baliabideak prestatzea eta aplikatzea.

EI1.7. Jarduera egin bitartean sortzen diren gatazkak edo gorabeherak konpontzea, prozedura, teknika eta estrategia egokiak erabiliz, eta, haien eskumenetik haratago badoaz, ezarritako bideak erabiliz.

A2: Mendeko pertsonen eta haien familia-ingurune kudeaketak ebatzen laguntzeko eta babesa emateko esku-hartzeak aztertzea eta gauzatea, komunitate-baliabideak eta -zerbitzuak eskuratzea bultzatuz.

EI2.1. Adineko pertsonentzat eta desgaitasunen bat dutenentzat dauden komunitate-baliabideak identifikatzea, eta esku hartzen den kolektiboen beharren betetze-mailaren arabera sailkatzea.

EI2.2. Prestaziorik ohikoenak eskatzeko dauden bideak eta egin beharreko kudeaketak identifikatzea, eta laguntza sozialeko, lanari, aisialdi, prestazio ekonomikoari eta abarri buruzko baliabideen fitxategi bat egitea.

EI2.3. Dokumentazio pertsonala eta etxeko dokumentazioa —osasun- eta banku-dokumentazioa, gutunak, etxearen mantentze-lanei buruzko dokumentazioa...— aurkitzeko, antolatze eta artxibatze prozedurak aplikatzea, hala dagokionean, erabiltzaileek parte hartuz.

EI2.4. Laguntzak, prestazioak eta zerbitzuak eskatzeko hainbat formatutako eta ereduak eskaerak identifikatzea eta betetzea.

EI2.5. Etxez etxeko kasuak bideratzeko arrazoi nagusiak aipatzea, dagozkien zerbitzuak eta profesionalak identifikatuz.

EI2.6. Identifikatzea adineko pertsona batek edo mendeko pertsona batek etxetik kanpoko zer jardueratan behar izan dezakeen norbaiten laguntza.

EI2.7. Autonomia pertsonalean eta ingurunean eguneroko moldatzeko norbanako laguntzako edo familia-orientazioko beharrak zehaztuak dituzten etxez etxeko arretako hainbat egoeratik abiatuta:

- Identifikatzea pertsonaren autonomia-maila, norbaitek laguntzeko eta/edo babesa jasotzeko dituen beharrak eta egin beharreko kudeaketarako egokiak diren baliabideak edo zerbitzuak.
- Zehaztea ebazpenerako behar diren esku-hartzeak eta/edo kudeaketak, pertsonaren autonomia-maila, haren ingurunea eta profesionalarena eta profesional eskudunei bideratzeko beharra.



- Deskribatzea haiek kontrolatzeko prozedurak, laguntzako esku-hartzeak eta eragile egokiei informazioa transmititzeko esku-hartzeen segimendua eta erregistroa.
- Profesionalari ematea dagozkion laguntza eta/edo babesa identifikatzea eta haiek gauzatzea, planteatutako egoerarako egokiak diren bitartekoekin, prozedurekin eta estrategiekin.

Edukiak:

1. Autonomia pertsonaleko esku-hartze estrategiak prestatzea

- Autonomia fisikoko ohiturak mantentzea eta lantzea etxeko eguneroko egoeretan.
- Etxeko baldintzak.
- Etxeko guneak, altzariak eta tresnak nola banatzea, banaketa eguneratzea eta seinalezatzea.
- Harreman sozialetan, kudeaketak ebazten eta familia-ingurunean laguntzeko eta babesa emateko esku hartzea.
- Komunitate-baliabideak.
- Laguntzak, prestazioak eta zerbitzuak eskatzea.

2. Harreman sozialetan, kudeaketak ebazten eta familia-ingurunean laguntzeko eta babesa emateko esku hartzea

- Bizikidetzaren unitatean zuzeneko arreta ematen duen profesionalaren funtzioak eta zeregina. Esku-hartze eremuak.
- Jarduera-estrategiak, mugak eta deontologia.
- Esku-hartze ohikoenak. Kudeaketak. Segimendua.
- Dokumentazio pertsonala eta bizikidetzaren unitatearen dokumentazioa.
- Dokumentazioa prestatzeko, erregistratzeko eta kontrolatzeko teknikak.
- Beste pertsona batzuen dokumentazioa maneiatzeko orduan konfidentzialtasuna ziurtatzea.
- Jarduera-mugak eta deontologia profesionala errespetatzea.

3. Eguneroko bizitzarako laguntza teknikoak eta teknologikoak

- Etxeko jardueretarako laguntza teknikoak.
- Etxebizitzarako eta beste eraikuntzetarako altzariak eta egokitzapenak.
- Produktuak eta ondasunak maneiatzeko laguntza teknikoak. Giroa, makinak eta erreminak hobetzeko. Aisialdirako.
- Ordenagailu pertsonalak. Internet. Posta elektronikoa. Beste laguntza batzuk.

4. Adineko pertsonen, desgaitasunen bat dutenen eta/edo gaixoen motibazioa eta ikaskuntza.

- Adineko pertsonen, desgaitasunen bat dutenen eta/edo gaixoen motibazioaren eta ikaskuntzaren ezaugarri espezifikoak.
- Funtzio kognitiboak mantentzea eta lantzea etxeko eguneroko egoeretan.
- Oroimena, arreta, orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala, arrazonamendua.

5. Etxez etxeko arretako zerbitzuak

- Mendeko pertsonentzako etxez etxeko zuzeneko arretako zerbitzuak, programak eta profesionalak.
- Ezaugarriak.
- Egitura funtzionala.
- Diziplinarteko taldea.

2.3. prestakuntza-atala:

ERLAZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA BEHAKETA MENDEKO PERTSONAREKIN ETA HAREN INGURUNEAREKIN

Kodea: UF0124

Iraupena: 80 ordu



Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Aurreikusitako jardueretara egokitutako laguntza psikosozialeko estrategiak aurrez ezarritako programa batean aplikatzea.

EI1.1. Ahalmen kognitiboak (oroimena, arrazonamendua, arreta, orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala, hizkuntza...) mantentzeko eta hobetzeko ariketak eta jarduerak egiteko material egokiak maneiatzea eta aplikatzea, aurreikusitako motibazioa eta ikaskuntzak lortzeko aplikatu beharko liritekeen esku-hartze estrategiak zehaztuz.

EI1.2. Erabiltzailearen behar espezifikoek eta programatutako jarduerak (errehabilitatzaileak, ahalmen kognitiboak hobetzekoak...) behar bezala zehaztuak dituzten etxer etxeko arretako hainbat egoeratan, erabiltzailearen parte-hartzea motibatuz eta haren ikaskuntza sustatzeko jarduerak-estrategiak identifikatzea eta aztertzea.

EI1.3. Dagozkien jarduerak-protokoloetatik abiatuta, aurreikusitako jarduerak eta/edo ariketak identifikatzea eta aplikatzea.

EI1.4. Pertsona helduen, desgaitasunen bat dutenen eta eriondoen gatazka-egoera nagusiak eta portaera-arazo bereizgarriak azaltzea.

EI1.5. Behar bereziak dituzten pertsonen etxer etxeko arretarako, jarrera aldatzeko eta gatazkak konpontzeko teknika eta prozedura egokiak deskribatzea, aztertzea eta aplikatzea.

A2: Pertsonen arretako testuinguruan aztertzea eta garatzea komunikatzeko zailtasun bereziak dituzten erabiltzaileak eguneroko bizitzan moldatzea eta harreman sozialak izatea sustatzeko egokiak diren komunikazio-estrategiak.

EI2.1. Eguneroko bizitzan moldatzeko komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen ezaugarri nagusiak eta behar bereziak zehaztea, baita portaera-eredu bereizgarriak ere.

EI2.2. Harreman sozialeko eguneroko egoerako kasu praktiko batean, parte hartzen duten komunikazio-prozesuak identifikatzea, komunikazioaren eta hizkuntzaren jabetzari, garapenari eta funtzionalitateari buruz hausnartuz, esku hartzen duten elementuak eta haietako bakoitzean eragiten duten faktoreak zehaztuz, eta pertsonen eguneroko bizitzan duten eraginarekin erlazionatzea.

EI2.3. Profesionalaren eta erabiltzailearen arteko komunikazio-egoerak deskribatzen diren eta testuinguruak zehaztuak dauden kasu praktikoetatik abiatuta, identifikatzea egoera bakoitzeko testuinguruak eta ezaugarri interaktiboak, eta komunikazioa sustatzen duten jarduerak-baliabideak eta -estrategia nagusiak.

EI2.4. Komunikatzeko behar bereziak dituzten pertsonengan:

- Identifikatzea eguneroko bizitzan moldatzeko garaian, bere desgaitasuna dela eta, sortuko zaizkion arazo espezifikoak.
- Arreta-jarduerak planifikatzeko eta garatzeko garaian aurrekusi behar diren komunikazio-behar bereziak zehaztea.
- Erabiltzailearen arreta fisikoa, afektiboa eta harremanetako eta bizi-kalitatea bermatzeko aplikatu behar diren komunikazio-estrategiak definitzea.
- Komunikazio-baliabideak arreta jasotzen duen pertsonaren beharretara egokitzea, aurrez ezarritako esku-hartze planaren arabera.
- Komunikazioa sustatzeko eta errazteko kode arbitrario espezifiko gisa aplikatu daitezkeen merkatuko edo horretarako diseinatutako baliabideak eta laguntza teknikoak identifikatzea eta aplikatzea: idazketa, marrazki errazak, benetako objektuak edo miniaturazkoak, argazkiak, etab.
- Arreta jasotzen duen pertsonarengan detektatutako komunikazio-behar bereziak identifikatzea eta eskudunei transmititzea.
- Erabiltzaileen komunikazioa sustatuko duten informazioa eta orientabidea zaintzaileei ematen laguntzea.

EI2.5. Ahoz komunikatu ezin den pertsona baten etxer etxeko arretako kasu praktiko batetik abiatuta:

- Egunean zehar erabiltzailea zaintzeko eta osoko arreta emateko komunikazio zuzena bermatuko duten oinarrizko mezuak sortzea ohiko sistemetan.
- Komunikazioa eta erabiltzaileari osoko arreta ematea erraztuko duen laguntza-kode bat diseinatzea baliabide hauetatik abiatuta: idazketa, argazkiak, objektuak eta marrazkiak.
- Mezu errazak igortzea eta ulertzea, eguneroko gaien buruzko elkarriketak izateko.



Edukiak:

1. **Asaldura nagusi orokorrekin erlazioatutako komunikazio- eta hizkuntza-arazoen identifikazioa**
 - Atzerapen mentala.
 - Haurraren garun-paralisia.
 - Autismoa.
 - Parkinsona.
 - Alzheimerra.
 - Albo-esklerosi amiotrofikoa.
 - Esklerosi anizkoitza.
 - Entzumen-urritasunak.
 - Ikusmen-urritasunak.
 - Gor-itsutasuna.
 - Hizkuntza- eta komunikazio-arazoak dituen pertsona bakoitzaren egoera espezifikoak kontuan hartzea.
2. **Mendeko pertsonen komunikazioa**
 - Komunikazio-prozesua.
 - Komunikazio-behar bereziak.
 - Desgaitasunak. Osasun mentala. Gutxiengo etnikoak. Beste batzuk.
 - Komunikazio- eta hizkuntza-arazoak.
 - Komunikazioko esku hartzeko estrategiak eta baliabideak.
 - Komunikazio-sistema alternatiboak. Kontzeptua eta sailkapena.
3. **Harreman soziala eta laguntza-jarduerak sustatzeko tekniken aplikazioa**
 - Komunikazioko esku-hartze estrategiak.
 - Komunikazio-sistema alternatiboak hautatzeko prozesua. Komunikazio-baliabideak.
 - Urrietasun fisikoak, psikikoak eta mugimenduzkoak dituzten pertsonentzako komunikazio-teknika alternatiboak eta handigarriak.
 - Urrietasun sentzorialak dituzten pertsonentzako komunikazio-teknika alternatiboak eta handigarriak.
 - Komunikazio alternatibo eta handigarriko laguntza teknikoak. Informatzeko eta seinalatzeko laguntza teknikoak.
 - Mendeko pertsonaren bilakaera orokorra aztertzeko teknikak.
 - Mendeko pertsonen komunikazio-arazoen sentikortasuna.

3 3. prestakuntza-modulua: ETXEZ ETXEKO ARRETA ETA FAMILIA-ELIKADURA

Kodea: MF0251_2

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC0251_2 Bizikidetzaren unitatearen kudeaketa eta funtzionamenduari lotutako jarduerak garatzea.

Iraupena: 100 ordu

3.1. prestakuntza-atala: MENDEKO PERTSONEN FAMILIA-UNITATEKO KUDEAKETA, HORNIKUNTZA ETA SUKALDARITZA

Kodea: UF0125



Iraupena: 60 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB1, LB2, LB3 eta LB6 lanbide-burutzapenekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Etxeko lan-plana prestatzea, esku-hartze jarduerak bizikidetza-unitatearen beharretara egokituz.

E11.1. Etxean bete beharreko beharrak eta eskaerak zehazten dituzten faktoreak zerrendatzea.

E11.2. Etxebizitza-unitateetako etxez etxeko laguntza-beharrak eta -eskaerak deskribatzea, kide-kopurua eta haietako bakoitzaren behar espezifikoak kontuan hartuta.

E11.3. Etxean egin behar diren etxeko lanak zerrendatzea eta segida zehaztea, detektatutako beharren arabera eta, horrelakorik badago, diziplinarreko taldeak diseinatutako esku-hartze programara egokituta.

E11.4. Hainbat motatako bizikidetza-unitateen aurrean:

- Egin beharreko zereginak identifikatzea.
- Egun/aste batean nola banatu zehaztea.
- Zehaztea ea jarduerak egiteko ezarritako segida eraginkorra den denborari eta ahaleginei dagokienez.
- Erabiltzaileak jarduerak egitean parte har dezan sustatzea, haren autonomia bultzatzeko, ezarritako jarduera-planaren jarraibideei jarraituz.

A2: Etxeko gastuak administratzeko eta kontrolatzeko prozedurak aplikatzea, haiei lehentasuna emanaz eta arrazionalizatuz, bizikidetza-unitateko kide bakoitzaren diru-sarreraren eta beharren arabera.

E12.1. Ereduzko bizikidetza-unitate bateko ohiko gastu-motak deskribatzea.

E12.2. Bizikidetza-unitateko gastuekin erlazioatutako dokumentazioa aztertzea: fakturak (argia, gasa, ura, telefonoa), ordainagiriak (komunitatea, kontribuzioa, osasun-erakundeak, aseguruak...).

E12.3. Hainbat bizikidetza-unitateko hileroko gastuak aztertzea, kide-kopuruaren eta haietako bakoitzaren beharren eta ezaugarrien arabera.

E12.4. Bizikidetza-unitate bateko hileko aurrekontuaren banaketa baldintzatzen duten faktoreak zerrendatzea.

E12.5. Etxe bateko gastuak administratzeko eta kontrolatzeko egoeretan:

- Gastuekin lotutako dokumentazioa aztertzea.
- Hileko gastuaren partidak zerrendatzea.
- Aurrekontua egiteko kontuan izan behar diren parametroak ezartzea.
- Gastuen lehentasunak justifikatzea.
- Gasturik egokienak banatzea.
- Sarreraren eta gastuen arteko oreka egiaztatzea.
- Erabiltzaileak eta/edo zaintzaile nagusiek fase guztietan parte har dezaten sustatzea, haren autonomia bultzatuz eta autodeterminazioa errespetatuz, dagokion mailan.

A3: Elikagaiak, tresnak eta etxean erabiltzen diren oinarritzko beste produktu batzuk erostea eta bere lekuan jartzea.

E13.1. Elikagaiak, garbiketako, higieneko eta etxearen mantentze-lanetarako produktuak saltzen dituzten saltoki- eta zerbitzu-motak zerrendatzea, eta haien ezaugarriak, abantailak eta eragozpenak identifikatzea.

E13.2. Hainbat merkataritza-zentro eta zerbitzutako publizitate-dokumentazioa aztertzea —inprimatua zein birtuala—, eta kalitate-prezioa erlazioan gomendagarriak diren produktuak identifikatzea eta hautatzea.

E13.3. Internetez eta telefonoz erosteko moduak maneiatzea.

E13.4. Hainbat kontsumo-produkturen eta elikagaien etiketak aztertzea, ematen duten informazioa interpretatuz eta haiek hautatzeko unean alderdi interesgarriak identifikatuz.

E13.5. Produktuak kokatzeko eta biltegitratzeko toki egokiak identifikatzea eta justifikatzea, haien ezaugarriak, kontserbazio-baldintzak eta irisgarritasuna aintzat hartuz.

E13.6. Hainbat egoeratan, elikagaien eta etxeko produktuen erosketaren planifikatzea, egitea, erositakoa bere lekuan jartzea eta kontserbatzeko eta biltegitratzeko prestatzea:

- Erosi behar diren produktuen lehentasunak ezartzea, kasu bakoitzean ezarritako parametroen arabera.



- Erosketa-zerrenda egitea nahiak kontuan hartuta eta stocka eta publizitate-liburuxka inprimatuak eta Internetekoak begiratuta, eta erosketa egitea.
- Produktuak kontserbatzeko eta erabiltzeko lekurik egokienak zehaztea.
- Gastua egindako aurreikuspena doitzen den ebaluatzea.
- Erabiltzaileak eta/edo zaintzaile nagusiek fase guztietan parte har dezaten sustatzea, haren autonomia bultzatuz eta autodeterminazioa errespetatuz, dagokion mailan.

A4: Sukaldaritzako oinarritzko teknikak aplikatzea menuak prestatzeko, familia-unitateko kideen ezaugarrien arabera.

EI4.1 Sukaldaritzako errezetak interpretatzea, kantitateak eta denborak jankide-kopuruaren eta haien behar espezifikoaren arabera egokituz.

EI4.2. Elikagaiak kontserbatzeko eta prozesatzeko metodoak deskribatzea.

EI4.3. Kontsumitzeko produktuak bete behar dituzten baldintzak zerrendatzea.

EI4.4. Etxeko ohiko elikadurako produktuak kozinatu aurreko prozedurak deskribatzea: desizoztea, zuritzea, zaitzea eta garbitzea.

EI4.5. Familiako sukaldaritzan aplikatu beharreko oinarritzko sukaldaritzateknikak azaltzea —egostea, galdarratzatzea, irakitea, frijitzea, erregostea, erretzea, etab.— eta kasu bakoitzean adieraztea aplikazio-faseak, jarduteko prozedurak eta moduak, denborak, ontziak, tresnak eta erabili behar diren etxetresna elektrikoak eta lortzen diren emaitzak.

EI4.6. Hainbat elikagai-mota aurretik elaboratzea, prestatzea eta kontserbatzea, eta lehenengo eta bigarren platerak eta postreak egitea.

EI4.7. Erabiltzen diren material guztiak garbitzea eta beren lekuan jartzea.

Edukiak:

1. Bizikidetz-unitateko lan-plana egitea

- Hura osatzen duten elementuak. Ezaugarriak. Prestaketa-prozedurak.
- Etxean bete beharreko beharrak eta eskaerak zehazten dituzten faktoreak.
- Eguneroko etxeko lanak.
- Eguneroko lanaren plangintza.
- Plangintza aintzat hartzea.

2. Bizikidetz-unitatearen aurrekontua kudeatzeko tekniken aplikazioa

- Bizikidetz-unitateko gastuak administratzea eta kontrolatzea.
- Etxeko kudeaketako dokumentazioa interpretatzea: fakturak, ordainagiriak...
- Etxeko hileko gastuen partidak:
- Ohiko eta aparteko gastuak.
- Banaketa eta oreka.
- Ehunekoen arabera doitzea.
- Bizikidetz-unitateko gastuen lehentasunak baldintzatzen dituzten faktoreak.
- Arretaz maneiatzea etxeko aurrekontua.

3. Erosketa-zerrenda egitea

- Hura zehazten duten faktoreak.
- Egindako aurrekontuarekin bat etortzea.
- Erosketa egiteko erabakiak: erabiltzailearekin eta haren ingurunearekin kontsultatzea.

4. Etxean erabili ohi diren produktuen erosketa eta kontserbazioa

- Establezimendu-motak. Abantailak eta eragozpenak.
- Erosketa birtuala eta telefono bidezkoa.
- Etiketak aztertzea.
- Etxeko elikagaiak kontserbatzeko sistemak eta metodoak.
- Elikagaien kontserbazioa, prozesaketa eta higiena.
- Elikagaiak prozesatzeko teknikak.
- Elikagaiak hondatzea prebenitzea.
- Elikagaiak kontserbatzeko metodoak.
- Sukaldeko materialak garbitzea eta beren lekuan jartzea.



5. Oinarrizko sukaldaritzaren tekniken aplikazioa

- Ontziak, tresnak eta etxetresna elektrikoak.
- Sukaldaritzako errezetak.
- Aurretiko elaborazioko oinarrizko tresnak.
- Sukaldaritzako oinarrizko elaborazioak: barazkiak, ortuariak, lekaleak, arrosa, pasta, haragia, arrainak eta itsaskiak.
- Ereduzko platerak elaboratzeko eta gauzatzeko eskemak:
- Entsaladak, eltzekoak, sopak, saldak eta kremak. Zizka-mizkak eta aperitiboak.
- Sukaldaritzako goarnizioak. Klaseak eta aplikazioak. Goarnizioak elaboratzea.

6. Elikadura-higienea

- Araudi higieniko-sanitarioa.
- Elikagai-aditiboak.
- Elikagaien manipulatuzaileentzako indarrean dagoen araudia.
- Elikagaiak behar ez bezala manipulatzearen ondoriozko osasunerako arriskuak.
- Elikagaien ondoriozko toxiinfekzioak.
- Elikagaien substantzia toxikoak.
- Elikadura-higienearen araei arreta berezia jartzea.

3.2. prestakuntza-atala:

MENDEKO PERTSONEN ETXEKO MANTENTZE-LANAK, GARBITASUNA ETA ANTOLAKETA

Kodea: UF0126

Iraupena: 40 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Garbiketako, higienearen mantentzeko eta ordenako teknikak aplikatzea eta konponketa txikiak egitea etxean.

EI1.1. Etxeko instalazio elektrikoak maneiatzetik eta erabiltzetik sortzen diren arriskuak eta erabili behar diren babes- eta segurtasun-bitartekoak deskribatzea.

EI1.2. Etxeko garbiketaren eta higienearen erabiltzen diren etxetresna elektriko motak —garbigailuak, lehorgailuak, lisagailuak, xurgagailuak, etab.— haien maneia, arriskuak eta erabilerako mantentze-lanak azaltzea.

EI1.3. Etxean aplikatzeko laguntza teknikoak azaltzea: telelaguntza, haren funtzionamendua eta utilitateak.

EI1.4. Erabili behar diren garbiketa- eta desinfekzio-produktuak hautatzea, haien etiketak aztertzea eta haien aplikazioak eta utilitateak, erabilera-arriskuak, erabiltzeko formak eta abar deskribatzea.

EI1.5. Lurzoruak, gainazalak, tresnak, altzariak, leihoak eta komun-ontziak garbitzeko teknikak azaltzea.

EI1.6. Etxean sortzen diren hondakin- eta zabor-motak deskribatzea, eta haiek sailkatzeko eta ezabatzeko modu egokia adieraztea.

EI1.7. Jantziaren eta etxeko arroparen etiketak interpretatzea eta arropa garbiketa-prozesuaren arabera sailkatzea.

EI1.8. Arropa makinaz eta eskuz garbitzeko teknikak deskribatzea, garbitzeko programak eta produktuak adieraziz jantziaren ezaugarrien, orban-motaren eta zikinkeria-mailaren arabera.

EI1.9. Etxea garbitzeko eta mantentzeko jarduerak egitea:

- Lurzoruak, gainazalak, tresnak, altzariak, leihoak eta komun-ontziak garbitzea, kasu bakoitzean egokienak diren produktuak eta materialak hautatuz.
- Hainbat motatako jantziak eta etxeko arropak garbitzea: etiketak interpretatzea, jantziak eta etxeko arropa sailkatzea, programarik egokiena aukeratuz garbitzea eta lehertzeko behar bezala jartzea.



- Jantziak egoera onean daudela egiaztatzea haiek konponduz: botoiak jostea, barrenak hartzea...
- Hainbat motatako jantziak lizatzea, programa egokia erabiliz arroparen ezaugarrien eta konposizioaren arabera.
- Jantziak, etxeko arropa eta garbiketako produktuak eta materialak beren lekuan jartzea.
- Etxeko muntaketako eta mantentze-lanetako konponketa txikiak egitea: entxufe bat aldatzea, lanpara fluoreszente eta goriak aldatzea, argi-etengailu bat muntatzea, kanilak doitzea, etab.
- Erabiltzaileak eta/edo zaintzaile nagusiek fase guztietan parte har dezaten sustatzea, haren autonomia bultzatuz eta autodeterminazioa errespetatuz, dagokion mailan.

Edukiak:

1. Etxea garbitzeko tekniken aplikazioa

- Garbitzeko teknikak eta produktuak.
- Hauek garbitzea: logelak eta beste gela batzuk, sukaldeak eta bainugelak, lurzorruak eta gainazalak, tresnak eta altzariak.
- Mendeko pertsonen arreta emateko gailuen, laguntza teknikoaren eta tresnen garbiketa berezia.
- Etxeko hondakinak eta zaborra sailkatzea eta hautatzea (papera, beira, metalak, brickak, organikoak).
- Etxeko hondakinak bereizita ezabatzea.
- Medikamentuak ezabatzea.
- Etxeko garbiketa eta higienean kontuan hartzea.

2. Arropa garbitzeko, konpontzeko eta lizatze tekniken aplikazioa

- Produktuak eta materialak.
- Garbigailu eta lehorgailuen erabilerarako mantentze-lanak.
- Arropa armairuetan jartzea eta armairuak garbitzea.
- Arropak eta etxeko tresnak arretaz maneiatzea.

3. Etxearen oinarrizko berrikusketa eta mantentze-lanak

- Etxeko gaiak eta tresnak bere lekuan jartzea eta ordenatzea.
- Ur- eta gas-hodiak berrikustea.
- Gailu elektrikoak eta etxetresna elektrikoak berrikustea.
- Leihoak eta ateak ixtea.
- Alarma- eta telealarma-sistemak erabiltzea. Telelaguntzako eta telefonia mugikorreko sistemak erabiltzea: funtzionamendua, utilitateak, eskaintzen dituzten zerbitzuak.
- Aparatuen eta laguntza teknikoaren oinarrizko mantentze-lanak.
- Erabiltzailearen parte-hartzea eta autonomia sustatzea.

4. Etxeko arriskuak

- Etxeko instalazio elektrikoaren arriskuak.
- Etxetresna elektrikoaren arriskuak.
- Etxeko gas-instalazioaren arriskuak.
- Etxeko arriskuen prebentzioan arreta berezia jartzea.

5. Telelaguntza

- Funtzionamendua
- Ematen dituen utilitateak eta zerbitzuak.

4. prestakuntza-modulua: PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO LANEKOAK EZ DIREN JARDUNBIDEAK ETXEAN



Iraupena: 120 ordu

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Mendeko pertsonari behatzea eta harekin komunikatzea, beharrak identifikatzeko eta behar duen osasun-informazioa transmititzeko.

E11.1. Mendeko pertsonaren eta haren familia-ingurunearen ohitura osasungarriak sustatzeko behar den osasun-informazioa transmititzea.

E11.2. Erabiltzailearen jardueren eta jarreraren garapenari behatzea, behar bereziak, arrisku-faktoreak eta bilakaera fisikoa eta psikosoziala identifikatuz.

E11.3. Behaketa bidez lortutako datuak dagozkien protokoloetan erregistratzea.

A2: Higiene pertsonaleko eta oheak prestatzeko teknikak egokitzea eta aplikatzea etxean, erabili ohi diren produktuak, materialak eta tresnak aukeratuz, erabiltzailearen egoeraren eta teknika-motaren arabera.

E12.1. Erabiltzaileari higiene pertsonaleko teknikak aplikatzea, funtzio hori egiteko egokiak diren produktuak, materialak eta laguntza teknikoak erabiliz.

E12.2. Ohea prestatzea erabiltzailea mendekotasun-egoeraren arabera mobilizatuz.

E12.3. Oheratutako mendekotasun pertsonaren azala zaintzea.

A3: Erabiltzailea lekuz aldatzeko, mobilizatzeke, ibiltzeko eta posizio egokian jartzeko teknikak aplikatzea, haren mendekotasun-mailaren arabera.

E13.1. Erabiltzailea eta haren zaintzaile nagusiak hezten, orientatzen eta haiek parte har dezaten laguntzea leku-aldaketari, mobilizazioari, ibiltzeari eta posizionatzeari, laguntza teknikoan mantentze-lanei eta segurtasunari dagokionez, baita lekuz aldatzeko zerbitzuari dagokionez ere.

E13.2. Mobilizatzeke, lekuz aldatzeko eta ibiltzeko teknikak aplikatzea, pertsonaren erosotasun-beharren eta mendekotasun-mailaren arabera.

A4: Medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik emateko aginduak eta hotz- eta bero-tratamendu lokalak aplikatzeko aginduak betetzea, eskatutako teknikaren eta aginduaren arabera erabili behar den materiala zehaztuz eta antolatuz.

E14.1. Ahotik, uzkitik eta bide topikotik hartzeko agindutako tratamenduak ematen laguntzea.

E14.2. Bizi-konstanteak hartzea, konstante bakoitzarentzako egokiak diren teknikak erabiliz.

A5: Jaten emateko eta hondakinak jasotzeko laguntza-teknikarik egokienak aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera, aurrez ezarritako jarraibideei jarraituz.

E15.1. Jaten ematen laguntzeko, mendeko pertsonaren egoerara egokitutako teknika erabiltzea.

E15.2. Hondakinak jasotzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera.

A6: Erabiltzaileei eta familia-inguruneari laguntza eta babes psikosoziala ematen laguntzea, erabiltzailearen autonomia pertsonala bultzatzeko irizpideak eta estrategiak aplikatuz.

E16.1. Jarduera gauzatzeko espazio- eta material-baliabideak prestatzea eta aplikatzea.

E16.2. Jarduera egin bitartean sortzen diren gatazkak edo gorabeherak konpontzea, prozedura, teknika eta estrategia egokiak erabiliz, eta, haien eskumenetik haratago badoaz, ezarritako bideak erabiliz.

E16.3. Mendeko pertsonaren ahalmenak estimulatzea plano kognitiboan, eguneroko ohituretan eta harreman sozialetan.

E16.4. Laguntza eta komunitate-zerbitzuak eskuratzeko egin beharreko kudeaketetan laguntzea, mendeko pertsonaren autonomia-mailaren arabera.

A7: Etxeko lan-plana prestatzea, esku-hartze jarduerak bizikidetzaren unitatearen beharretara egokituz.

E17.1. Egin behar diren zereginak identifikatzea eta, egun/aste batean nola banatu zehaztea.

E17.2. Etxeko lan-planak bizikidetzaren unitatearen egoeretara egokituta egitea.

A8: Elikagaien, tresnen eta etxean erabiltzen diren oinarrizko beste produktu batzuen erosketa antolatzea eta egitea eguneroko edo astero.

E18.1. Elikagaien erosketa bizikidetzaren unitatearen beharren arabera antolatzea eta planifikatzea.

E18.2. Erosi behar diren produktuen lehentasunak ezartzeko, kontuan izatea mendeko pertsonaren beharrak eta eskura dagoen aurrekontua.



EI8.3. Erosketa-zerrenda egitea.

EI8.4. Produktuak kontserbatzeko eta erabiltzeko lekurik egokienetan jartzea.

EI 8.5 Erabiltzaileak eta/edo zaintzaile nagusiek fase guztietan parte har dezaten sustatzea, haren autonomia bultzatuz eta autodeterminazioa errespetatuz, dagokion mailan.

A9: Sukaldaritzako oinarritzko teknikak aplikatzea menuak prestatzeko, familia-unitateko kideen ezaugarrien arabera.

EI9.1. Mendeko pertsonari egokitutako menuak egitea, elikagaiak aurretik elaboratzeko, elaboratzeko eta kontserbatzeko arauak jarraituz.

EI9.2. Prozesuan erabilitako lanabesak eta tresneriak garbitzea, erabilerari eta material-motari egokitutako maiztasunez, produktuekin eta metodoekin.

EI9.3. Elikagaiak behar duten tenperaturan mantentzea.

EI9.4. Materialak eta energia-baliabideak zentzuz erabiltzea, behar ez diren kontsumoak, kostuak eta higadurak saihestuz.

EI9.5. Elikagaiak manipulatzeko arauak betetzea.

A10: Etxearen garbiketa egitea, ordena mantentzea eta konponketa txikiak egitea.

EI10.1. Etxeko etxetresna elektrikoak maneiatzeko behar diren segurtasun-neurriak aplikatzea.

EI10.2. Etxearen beharretara egokitutako garbiketa-teknikak aplikatzea.

EI10.3. Mendeko pertsonaren espazioa eta erosotasuna errespetatzea etxeko lanak egitean eta etxea garbitzean.

A11: Enpresaren lan-prozesuetan parte hartzea, lantokian zehaztutako arauak eta argibideei jarraikiz.

EI11.1 Arduraz jokatzeko, bai giza harremanetan, bai egin beharreko lanetan.

EI11.2 Lantokiko prozedurak eta arauak errespetatzea.

EI11.3 Egitekoei arretaz ekitea, jasotako argibideei jarraikiz, eta enpresaren lan-eritmorra egokitu daitezen saiatzeko.

EI11.4 Lantokiko ekoizpen-prozesuetan integratzea.

EI11.5 Zehaztutako komunikazio-bideak erabiltzea.

EI11.6 Arriskuak prebenitzeko, laneko osasuneko eta ingurumena babesteko arauak errespetatzea une oro.

Edukiak:

1. Etxez etxeko higieneko eta arreta sanitarioko jarduerak

- Ohitura osasungarriak eta mendeko pertsonari laguntzeko ohiturak sustatzea.
- Erabiltzaileei higiene pertsonaleko teknikak, ohea prestatzekoak eta azalaren egoerari behatzekoak aplikatzea.
- Erabiltzaileak mobilizatzeko, lekuz aldatzeko, ibiltzeko eta beren lekuan jartzeko teknikak.
- Ahotik, uzkitik eta bide topikotik hartzeko agindutako tratamenduak aplikatzen laguntzea.
- Bizi-konstanteak hartzea.
- Jaten ematen laguntzeko eta hondakinak jasotzeko teknikak.

2. Etxez etxeko arretako eta laguntza psikosozialeko jarduerak

- Erabiltzaileekiko komunikazio profesionala.
- Erabiltzaileek etxez etxeko laguntzari erreparatzea beren eguneroko bizitzak jardueretan.
- Erabiltzaileei laguntzea eta babesa ematea, haien autonomia pertsonala bultzatzeko.
- Lan-jardueran sortzen diren gatazkak eta gertakizunak konpontzen laguntzea, prozedura, teknika eta estrategia egokiek.
- Erabiltzailearen behar bereziak, arrisku-faktoreak eta aldaketa fisikoak eta psikosozialak identifikatzea.
- Erabiltzaileari eguneroko jardueretan laguntzea.


3. Etxez etxeko laguntzako eta familia-elikadurako jarduerak

- Etxeko lana egunero planifikatzea.
- Bizikidetzaren unitatearen eguneko/asteko erosketa planifikatzea.
- Etxeko elikagaiak planifikatzea, aurrez elaboratzea, elaboratzea eta kontserbatzea.
- Etxea garbitzeko teknikak.



4. Integrazioa eta komunikazioa lantokian

- Jarrera arduratsua izatea lantokian.
- Lantokiko prozedurak eta arauak errespetatzea.
- Jasotako argibideak interpretatzea eta arretaz gauzatzea.
- Enpresako ekoizpen-prozesua ezagutzea.
- Lantokiko komunikazio-bideak erabiltzea.
- Enpresako lan-erritmoraren egokitzea.
- Arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna eta ingurumena babesteko arauen segimendua egitea.



IV PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK, GUNEEN, INSTALAZIOEN ETA EKIPAMENDUEN GUTXIENEN ESKAKIZUNAK, ETA IKASLEAK SARTZEKO IRIZPIDEAK

PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK

EKIPAMENDUEN, INSTALAZIOEN ETA GUNEEN GUTXIENEN
ESKAKIZUNAK

IKASLEAK SARTZEKO IRIZPIDEAK



PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	BEHARREZKO AKREDITAZIOA	GAITASUN-ATALAREN EREMUAN BEHAR DEN ESPERIENTZIA PROFESIONALA	
		Akreditazioa izanez gero	Akreditaziorik izan ezean
MF0249_2 Etxez etxeko higieena eta arreta sanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> • Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna • Erizaintzan diplomatua • Dietetikako goi-mailako teknikaria • Integrazio sozialeko goi-mailako teknikaria • Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria • Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuen lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria 	1 urte	Nahitaezkoa da titulazioa
MF0250_2 Etxez etxeko arreta eta laguntza psikosoziala	<ul style="list-style-type: none"> • Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna • Pedagogian, Psikologian, Soziologian eta Psikopedagogian lizentziaduna • Edozein espezialitateko maisu-maistra • Gizarte Lanean diplomatua • Gizarte Hezkuntzan diplomatua • Integrazio sozialeko goi-mailako teknikaria • Gizarte- eta kultura-animazioko goi-mailako teknikaria • Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria • Zeinu-mintzairaren interpretazioko goi-mailako teknikaria • Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuen lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria 	1 urte	Nahitaezkoa da titulazioa
MF0251_2 Etxez etxeko arreta eta familia-elikadura	<ul style="list-style-type: none"> • Dietetikako goi-mailako teknikaria • Jatetxe-arloko goi-mailako teknikaria • Ostatu-arloko goi-mailako teknikaria • Integrazio sozialeko goi-mailako teknikaria • Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria • Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuen lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria • Ostalaritzaren lanbide-eremuko ostalaritza eta turismoa lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria 	1 urte	3

Araudiaren arabera, eskatzen den akreditazioa egiaztatzeko, prestatzaileak edo adituak Lanerako Prestatzailearen profesionaltasun-ziurtagiria eduki behar du, edo helduen lanbide-heziketako metodologia didaktikoko prestakuntza baliokidea. Salbuetsita daude:

- Pedagogiako edo Psikopedagogiako titulazioa dutenak, edozein espezialitateko maisu-maistrak, edo Psikologiako edo Pedagogiako graduatu-titulua dutenak edo Psikopedagogiako espezializazioko graduondoko titulua dutenak.



- Aurreko atalean adierazitakoez bestelako unibertsitate-titulazio ofizial bat eta Hezkuntza Ministerioak, edo balioideak, emandako espezializazio didaktikoko titulua dituztenak.
- Azken zazpi urteetan enplegurako lanbide-heziketan edo hezkuntza-sisteman gutxienez 600 orduko irakasle-esperientzia izan dutela egiaztatzen dutenak.

EKIPAMENDUEN, INSTALAZIOEN ETA GUNEEN GUTXIENENKO ESKAKIZUNAK

PRESTAKUNTZA-GUNEA	AZALERA (m ²) / 15 IKASLE	AZALERA (m ²) / 25 IKASLE
Erabilera anitzeko gela	30	50
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	60	90
Etkez etxeko laguntzarako lantegia	40	40

PRESTAKUNTZA-GUNEA	1. M.	2. M.	3. M.
Erabilera anitzeko gela	X	X	X
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	X	X	
Etkez etxeko laguntzarako lantegia	X	X	X

PRESTAKUNTZA-GUNEA	EKIPAMENDUA
Erabilera anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Errotuladoren idazteko arbelak - Ikus-entzunezko ekipoak - Orri birakaria - Ikasgelako materiala - Prestatzailearentzako mahaia eta aulkia - Ikasleentzako mahaia eta aulkia
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-ohetak - Armairuak - Telefonoa - Pertsona-bilagailuak - Telealarma-sisteman erabiltzen diren aparatuak - Gurpil-aulkia - Laguntza teknikoak - Manikiak - Bastoiak eta makuluak - Tantz-tantzako zundak - Telefonoa



	<ul style="list-style-type: none">– Higiene pertsonalerako eta garbiketarako tresnak eta kontsumo-materiala eta tresna eta material sanitarioa– Interneterako sarbidea duen ordenagailua– Inprimagailua
Etxez etxeko laguntzarako lantegia	<ul style="list-style-type: none">– Oheak eta koltxoiak– Armairuak– Sukaldeko etxetresna elektrikoak– Ke-kanpaia duen sua– Labea– Sukaldeko materiala eta tresnak– Gainazalak garbitzeko materiala eta tresnak– Garbitzeko etxetresna elektrikoak.– Ostatua apaintzeko osagarriak– Garbitzeko material txikia– Etxeko arrea

IKASLEAK SARTZEKO IRIZPIDEAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES